

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-09-12
ASTELEHENA
333. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



Orfeoak bere egin zuen Oñati

Ulmaren 50. urtemugako ospakizunetan saio hunkigarria egin zuten, Bilboko Bandarekin | 29

Ohi baino jende gutxiago ibili zen Bergarako San Martin ferian | 14



Zuntz optikoa izango da Antzuolan, urtebetean | 11



Kopan galdu arren, emandako mailarekin pozik Aloñakoak | 23



BAZUTEN BIDEA NORK ERAKUTSI

Animoak eta aldarrikapena uztartuta, Espainiako Vueltak Debagoiengan egindako sartu-irtenean | 24

Markel Irizar txirrindulari oñatiarra, tropeleko bigarren lekuan, Kanpazar mendatean gora.

JULEN IRIKONDO

Bailarako ordezkaritza Silicon Valleyn, teknologiaren munduko hiriburuan

Aitor Otxoa ingeniari itza ikasle arrasatearra Kalifornian izan da lanean bi hilabetez. Besteak beste, Google, Apple eta Facebook kokatuta dauden puntako teknologiaren erreferentziatzeko toki den hartan lau proiektu berri-tzailetan jardun du, *Imagine* izeneko programa baten. | 2

Jaurlaritzako ordezkari ez zen izan Arantzazun

Ohiko mezuak izan ziren, eliza barruan nahiz kanpoan | 4

Folklore eta kirola, Leintz Gatzagako jaietan

la herri osoa batu zen zapatu gaueko herri afarian | 12

Hasiera kaxkarra eman diote ligari futbol taldeek, Aretxabaletak baino ez baitu irabazi | 22

goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!

ATERA IRRIBARREA



CLINICA DENTAL
BERGARA



Txartela, beti aldean

► Zoaz 9 orrialdera

"Silicon Valleyn eman dudan denborak bizitza aldatu dit"

- ▶ Aitor Otxoa arrasatearra pozik bueltatu da teknologia berriak sortzen diren bailaratik
- ▶ Lau proiektu berritzaile garatu ditu taldean, eta hango lan egiteko modua bereganatu du

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Uztailean eta abuztuaren bizitza aldatu dion bidaia baten joan zen Aitor Otxoa 22 urteko Ingeniaritza ikasle arrasatearra: munduko punta-puntako teknologiak jaiotzen diren lekura, AEBetako Silicon Valley-ra joan zen, Kaliforniara; besteak beste, Google, Apple edo Facebook enpresak dauden tokira. Han bi hilabete eman ditu, "lanean, baina oso-oso gustura", eta oraingo asteen berriz ere lanari ekingo dio betebete. Horren aurretik, ordea, Goienari eta Arrasate Irratiari tartetxo bat egin die.

Imagine izeneko programa baten aukeratu zuten, Europako beste 11 ingeniari, ikasle eta enpresako ordezkariarekin batera, teknologia berrien bailara hartara joateko; eta imajina ezinezko berrikuntzak eta esperientziak bizi eta ikusi izan ditu han.

Arropa eta ohe inteligentek

Silicon Valleyn, Aitorrek eta bere taldeak lau proiektutan egin behar zuten lan. Izenak eurak ere deigarriak dira: arropa inteligentea, ohe inteligentea...

Proiektu bat BMW etxearekin zen: etorkizunean zelan mugituko garen hirietan, autoz, oinez, garraio-bide berrietan...; Innovalley etxearekin, arropa inteligentea landu zuten; McCann-ekin, etorkizuneko publizitatea zelakoa izan daitekeen –norberarendako erosketa-laguntzailea izan dezakegu etorkizunean, eta berak egin diezaguke erosketa egokiena: "adibidez, 15:00ak eta 17:00ak bitartean leku jakin batera hegaldia gura badugu, berak baldintza guztiak aztertu eta aukera onena erosten du", esaten du Otxoak; eta Cink markarekin etorkizunean arropa zelan erosiko dugun aztertu zuten, sare sozialen testuinguruan.

Azkenean, ohe inteligentearen proiektua aurkeztu zuten, eta Aitorrek azaltzen digu zertan zertan: "Dena neurtzen du: lo egiteko etapak; min hartuta baldin bagaude, gorputz-atal horri bero handiagoa ematen dio; musika ipintzen du; etxeko argiak kontrolatzen ditu; iratzartzeko, gustuko musika ipintzen du, edo hondartzako soinua; eta, iratzarri gura dugun ordu bitarte bat eman ez gero, adibidez 07:00ak eta 07:30 artean, berak gorputzaren dako une egokienean iratzartzen zaitu. Umeen kasuan, amarekin konektatuta egon daiteke. Eta guztia telefono mugikorrarekin kontrola daiteke".

Boleibol zelaia

Ohe hori egiteko ideia izan zuten Silicon Valleyn bertan egiten duten bizimodua ikusita: "Jendea

ez da arduratzen lotara joateko orduaz. 10 ordu, 12 ordu...egiten dute lan; gero, lau-pabost ordu lo egiten dute; gero beste bi lan...", esaten digu Aitor Otxoak. Euskal Herriko bizimoduarekiko beste alde bat: "Han, jendea ez du asteleheneko ajerik izaten, ez da lanera penaz joaten, oso motibatuta baizik. Komentatzen zidaten hurrengo egunean lanera joango zirela, proiektu hau eta bestea aurrera ateratzera... Pozik joaten ziren". Bera ere, egunean 10-12 ordu sartzera ohitu zen, baina "gustura" ibili zela esaten digu, eta orain ere berdin lan egiteko gertu dagoela.

Edozein modutan, filosofia horrek zerikusi handia dauka Silicon Valleyn enpresak zelakoak diren jakinda: "Enpresek instalazio asko zituzten: Google-en, esaterako, zegoen igerilekua, bi

AITOR OTXOA | INGENIARITZA IKASLEA

"Hemen ere balio handia dago, baina ez dugu guregan hainbeste sinisten"

Teknologia munduan oso sartuta egon arren, Otxoa ere "harrিতuta" geratu da Kalifornian ikusitakoarekin.

Ze animurekin bueltatu zara?

Pilak kargatuta etorri naiz, eta harrিতuta, zer dagoen asmatuta eta han eguneroko gauzetarako zelan aplikatzen duten ikusita.

Adibide bat emango diguzu?

Futbol amerikar partidu batera baldin bazoaz eta ondoan arazoak sortzen badira, mugikorretik testu-mezu bat edo e-mail bat bidal diezaiokizu poliziari, eta segituan agertzen da. Han jende guztiak telefono mugikorrez eta Internetez egiten du dena, gero eta gehiago; papeira-eta gero eta gutxiago erabiltzen dira. Guk ere ez



LEIRE KORTABARRIA

genuen koaderno beharrik izaten gure lanean.

Zelan dago Debagoiena edo Euskal Herria, Silicon Valleyrekin alderatuta?

Hemen ere indar eta balio handia dago, eta gauzak ondo egiten ere badakigu. Baina han bere buruan sinisten dute, egin daitekeela sinisten dute; hemen ezkorragoak gara.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Han zerbait sortu eta hona ailegatu orduko hilabeteak pasatzen dira, baina denbora kontua da; hango telefono mugikor modelook hemen merkatuan daudenak dira, aplikazioak dira desberdinak. Nik uste dut hemendik hiru urtera denok izango dugula Internet poltsikoko telefonoan; deiak eta mezuak doan izango dira eta Internet bakarririk ordainduko dugu. Hala ere, ez nuke gurako hori muturrera joan dadin, pertsonen arteko harremana hotzagoa izango litzateke-eta.



Aisialdirako instalazio asko dituzte Silicon Valleyko enpresek. Argazkian, Aitor Otxoaren t...



Lantaldea, San Frantziskoko Golden Gate famatua atzean ikusten dela.

gimnasio, hondartza bat, boleibolea jokatzeko zelaia... Baze-kitenez langileek ordu asko eman behar zituztela han, hori guztia eskaintzen zuten; eta langileei ez zitzaion axola han ordu asko ematea". Aitorrek eta bere taldeak

ere aisialdi aukera horiek aprobetxatu zituzten: bizikletan ibilaldiak, partiduak, barbakoak...

Google, Apple, Adobe, Ebay, Facebook... Alor bereko hainbeste enpresa leku berean izanda, pentsatzekoa da dena isilpean izango dutela. Baina kontrakoa da: "Enpresek elkarrekin lan handia egiten dute eta elkarri asko laguntzen diote. Euren pentsaera hau da: bi enpresak aurrera badoaz, bailara ere aurrera joango dela, eta hobe dela gauza berriak etxean sortzea, kanpokoek sor ditzaten baino".

Hori bai, sendo egiten dute lan: "Presio handia dute, eta dena oso azkar doa; izan ere, aste batean teknologia aldatzen da". Bestetik, enpresek batera lan egin arren, "pikea dute, ea zein den onena".

Burmuinetik bizikletara

Teknologia berrien sorlekuan, jakina, teknologia haiek edonon daude: "Harrigarria da zelan dena Internet bidez eta poltsikoko telefono bidez egiten duten; jende guztiak *smartphone*-a dauka. Euskal Herrian ere erabiltzen ditugu, baina han jendea 24 orduz dago konektatuta eta edozer gauza egin



Aldea Stanford-eko taldearen aurka, futbolean.



Aitor Otxoak beste 11 lagunekin osatzen zuen lantaldea.



Arropa inteligentea probatzen.



Sausalito eta Tiburon herrietan bizikleta ibilaldia egin zuen *Imagine* talde osoak. | ARGAZKIAK: AITOR OTXOA

daiteke *on-line*: jatetxe txinatar baten bazkaria eskatu, erosketak egin, poliziari abisatu, sarrera batzuk erosi... denetik".

Asmakizun txundigarriak probatzeko aukera izan zuen Aitorrek: "Bizikleta bat probatu nuen; bere aldagailua burmuinaren energia elektrikoarekin kontrolatzen da, kasko eta motxila berezi batekin. Hemen, medikuntzan erabiltzen da teknologia; adibidez, esku protesikoa dutenen kasuan. Baina han, beste arlo batera eramanez", azaltzen du.

Jendea, inbertitzeko desiratzen Euskal Herrian eta AEBetan talentua baldin badago, galdera da zergatik hemen polikiago doazen aurrerapenak. Aitor Otxoak hauxe diosku: "Hemen, filtro gehiago pasatu behar dira; han, patenteak azkarrago egiten dira, jendea gertu dago laguntzeko, eta bestalde, inbertitzeko joera handia dago, eta hori oso garrantzitsua da. Demagun enpresa bat ateratzen dela, sekulako booma dela eta 100 milioi egiten dituela; bada, gobernuak 45 milioi eskatuko dizkio.

Baina beste aukera bat emango dio: 45 milioi horiek arrisku-kapitalean inbertitzea. Orduan, inbertitu egiten dute. Enpresa berri batek 100 bezero lortzen baditu, ziur gutxienez 30.000 euro lor ditzakeela". Otxoak esaten duenez, bere taldeak ere 30.000 euro egitea lortu zuen bi astean, eta "hemen, hori oso zaila izango litzateke".

Hala ere, Aitor Otxoak hemen enpresak ere ondo ikusten ditu: "Pozgarria da bueltatzea eta ikustea hemen ere gaitasun han-

dia dagoela eta gauzak ondo egiten direla". AEBetatik bueltatu eta gero, aste beteko atsedena izan du, eta gero, buru-belarri sartuko da berriz ere lanean, zarpia proiektutan sartuta. Aurten opor barik geratu da: "Hiru egun bakarrik izan nituen jai, eta San Diegora joan nintzen; beste guztietan lan egin nuen". Baina merezi izan du esperientziak.

Orain, bere helburua da "lanean beste ikuspuntu bat sartzea, eta orain guztiz gertu nago 10 ordu, 12 ordu edo behar dena egitera".

"Gustura nago hemen"

Etorkizunean bere burua non ikusten duen galdetuta, hauxe esan digu: "Oraingoz gustura nago hemen, baina aukerei zabalik. 22 urterekin, esan dezaket Apple-en, Stanford-eko Unibertsitatean... egon naizela, eta momentuz nahikoa dut horrekin. Ez daukat Silicon Valleyn lan egiteko asmo zehatzik. Beharbada, merkatua asko aldatuko da", esaten digu. Bitartean, esploratzen jarraituko du: Asiatara bidaiatuko du laster, hango berri-tasunak ere ezagutzera.

ARRASATEKOBASERRIKO PRODUKTUENAZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2011 irailak 17

urriak 15 azaroak 19

Antolatzailea:



Laguntzailea:



Agintari berriak, baina Jaurlaritzakorik ez, Arantzazuko Amaren Egunean

- ▶ Oñatiko Udal Gobernuako kideak eta hainbat diputatu ez ziren elizara sartu
- ▶ Euskal presoan aldeko elkarretaratzeratu batu ziren meza garaian

ARRITXU BARRUSO | OÑATI

Oñatiko Udal Gobernuako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak izan ziren Arantzazura iristen lehenak. Izan ere, 10:00ak inguruan Gandiaga Topagunera joan ziren bertako instalakuntzak ezagutzera. Gipuzkoako Diputazioetik etorri ziren Garbiñe Rekondo (Administrazio Orokorreko diputatua), Helena Franco (Ogasuneko diputatua), Jon Uriguen (Landa Garapenerako diputatua) eta Larraitz Ugarte (Mugikortasun eta Bide-azpiegiturako diputatua). Gipuzkoako Batzar Nagusietako Mahaia-aren presidente den Loitzune Txarola ere beraiekin izan zen.

Bakearen aldeko konpromisioa

Larraitz Ugartek adierazi zuen bakearen eta euskal kulturaren aldeko konpromisioa adieraztera etorri zirela Arantzazura: "Foru Aldundi bezala euskal kulturarekiko eta bakearekiko gure konpromisioa adieraztera etorri gara; esatera adierazpen horrekin koherenteak izango gara. Arantzazu euskal kulturaren eta bakearen ikurra izan da beti".

Jaurlaritzaren zain

Oñatiko udalbatzako EAJko zinegotzi guztiak eta Markel Olano diputatu nagusi ohia ere izan ziren



Garbiñe Rekondo diputatua, Mikel Biain alkatea eta Batzar Nagusietako presidente Loitzune Txarola. | ARRITXU BARRUSO

Arantzazun. Diputazioko eta Oñatiko Udal Gobernuako kideekin batera jaso zuten dantzarien aurrekua, Arantzazuko basilikarako bidea hartu aurretik. Eusko Jaurlaritzako ordezkariarik etortzeko zain egon ziren, baina inor agertzen ez zela ikusita basilikarako bidea hartu zuten politikariek.

Elizako atarian bide desberdinak Basilikaren atarira iristean bide desberdinak hartu zituzten ordezkari politikoez.

Loitzune Txarola (EA) eta Jon Uriguen (EA) basilikara sartu ziren, Oñatiko EAJko zinegotziekin eta Markel Olanorekin batera. Gainontzeko diputatuak eta Oñatiko Udal Gobernuako kideak, berriz, alkatea buru zutela, urtero egiten den euskal presoan aldeko elkarretaratzeratu batu ziren eta txalo artean hartu zituzten. *Euskal presoak etxera*, zioten oihuak ozen entzun ziren.

Mezaren ostean ordezkari politikoa elkarretaratzearen paretik igaro zirenean txalo zaparrada jaso zuten eta, behin elkarretaratzea pasata, politikariek ere txaloekin erantzun zieten.

ETArri desagertzeko eskaria

Jose Inazio Munilla gotzainak eman zuen meza eta homilian Arantzazuko Amari eskatu zion bake bidean urratsak eman behar dituztenen "bihotzak ukitzeko".

ETArri desagiteko "ausardia" eskatu zion eta "egindako gaizkia argi eta garbi aitortzea": "Horrenbeste min sendatzeko ezinbestekoa da gardentasunez hitz egitea. Indarkeria gaitzesteko eskatzen dugu; lehengoa, oraingoa eta etorkizuneko", esan zuen Muni-llak.

Arantzazuko Basilika tope-raino bete zen eta, Gipuzkoan jai eguna izanda, goiz guztian zehar jendetza ibili zen Arantzazun.

ESANAK

"Euskal kulturaren eta bakearen aldeko konpromisioa adieraztera etorri gara. Toki enblematikoa da Arantzazu"

LARRAITZ UGARTE | DIPUTATUA

"Arantzazuko Amari eskatzen diogu bakearen alde urratsak eman behar dituztenen bihotzak ukitzeko"

JOSE INAZIO MUNILLA | GOTZAINA



JULIO CALLEJA

Beroari aurre egiteko, bainua hartzea onena

Meteorologia eta Larrialdiei Aurre egiteko zuzendaritzak alerta horia zuen ezarrita beroagatik egubakoitzera. Eta aurreikuspenak bete egin ziren. Egun beroak izan ziren egubakoitza eta zapatua; termometroek gora egin zuten. Hala, Arrasaten 35,9 gradu izan ziren egubakoitzean eta 35,4 Oñatin zapatuan, esaterako. Ondorioz, jendeak igerilekuetara eta Oñatin Usakora jo zuen bainu freskagarria hartzera. Hain zuzen, atzo izan zen denboraldi honetan Usakon soroslea izan zen azken eguna.

Lagun bat atzeman dute Arrasaten, joko-makina batean lapurtu nahian

Gizonezkoa eta 40 urtekoa da Ertzaintzak egubakoitz goizean atxilotutako pertsona

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Beste lapurreta ahalegin bat Arrasaten. Egubakoitz goizeko 08:00ak aurretikoan Ertzaintzari deitu zioten herriko klub batetik, bezero bat arazoak sortzen ari omen zelako eta ez zuelako lokaletik alde egin nahi, bertako arduradunek hala eskatu zioten arren behin baino gehiagotan. Erkidegoko polizia bertara joan zenean, ohartu zen joko-makina bat bortxatuta zegoela eta pertsona bat ari zela bertatik txanponak harrapatzen.

400 euro zituen poltsikoan

Ertzainek identifikatu egin zuten berehala ustezko lapurra, eta poltsikoetan begiratuta 400 euro

inguru atzeman zizkioten, kopuru desberdinetako txanponetan.

Gero jakin ahal izan zuten, bezero hark diru kopuru dezentekoa sartu zuen aurrez joko-makinan eta, jaso behar lukeen saririk jaso ez zuela irizita, makina bortxatzea erabaki zuen.

Ertzain-etxera atxilo

Hau ikusita, Bergarako ertzain-etxeko agenteek atxilotu egin zuten: 40 urtekoa eta gizonezkoa da Arrasateko klubean atxilotutakoa.

Atxilotutako ustezko lapurra ertzain-etxera eraman zuten handik, egin beharreko diligentsietarako.

Kulturartekotasunaz jardungo dute hilaren 20an, EMUNen eskutik

Zabalik dago izen-ematea Gasteizko Villa Suso jauregian egingo den jardunaldirako; 'www.inmigrazioa.com' blogean eman daiteke izena

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Kulturartekotasuna: herria, hizkuntza eta hezkuntza lelopean EMUNek jardunaldia antolatu du irailaren 20rako, martitzena, Gasteizko Villa Suso jauregian. Beste herrialde batzuetatik heldu diren lagunen eta herritar guztien arteko integrazioa eta elkarbizitza bilatzea du horrek helburu, eta horretarako, Kataluniako esperientziakin batera, berritze-guneetan egiten den lana ere ezagutzeko aukera egongo da. Horretaz gainera, etorkin baten esperientziak lehen eskutik entzun ahal izango dira.

Dagoeneko zabalik dago jardunaldi horretan izena emateko epea. Interesa dutenek egubakoitzera arte dute aukera, www.inmigrazioa.com blogean. Matrikulak 30 euro balio du.

Goiz osoa irauko du jardunaldiak; 09:00ean hasiko da, 14:15era arte. Aurkezpenaren ostean, Kataluniako Garrotxa eskualdeko immigrazio eta hiritartasun arloko arduradun Xevi Casademontek immigrazioaren gaineko komunikazio eta perzeptzio kudeaketaz jardungo du.



Integrazioa du helburu. | GOIENA

Jarraian, Plataforma Per La Lenguako kide Carmen Perezek hizkuntzaren garrantziaz egingo du berba; eta horren ondoren, Gasteizko Berritze-guneko Jose Manuel Palaciosok eskoletako aniztasun kulturala izango du hizpide.

Hiru tailer

Ordu laurdenerako atsedenditxoaren ostean, tailerren txanda iritsiko da. Hiru egingo dituzte. Immigrazio teknikariei begira,

Zeintzuk dira herritarren gehien-goak immigrazioa arazo- iturri moduan ikusteko arrazoiak? izenekoa egingo dute; euskara teknikariendako, Nola eskatuko diogu etorkin bati euskaraz ikastea gaztelera denok ulertzen badugu? Ez al diegu etorkinei bertakoei baino gehiago eskatzen?; eta irakasleei zuzenduta, (Nola) Landu daitezke arlo bat ikasleek ez badiutze eskolako hizkuntza/k menderatzen?

Kolonbiarraren testigantza

Eguerdian mokadutxoa jateko astia izango dute parte-hartzaileek, etorkinen esperientziak entzun aurretik. Lehenik, Mario Humberto Calixtok hartuko du hitza, eta etorkin kolonbiar batek Euskal Herrian izandako bizipenak kontatuko ditu; jardunaldia amaitu aurretik, Kataluniako immigrazio arloko idazkari-ohi eta ERCko diputatu Oriol Amorosek hitzaldia egingo du.

Gai eta jardunaldi horri buruzko informazio gehiago eskuratu gura dutenak www.inmigrazioa.com webgunera sar daitezke.

Gurasoen eta irakasleen bigarren ikasturtea abian

Baketik-ek antolatutako ikasturtea lau zapatutan egingo dute, urrira arte

MIREIA BIKUÑA | ARANTZAZU

Baketik-ek gurasoendako eta irakasleendako bigarren ikasturtea abiaraziko du zapatuan, hilaren 17an. Lau zapatutan egingo dute ikasturtea: hilaren 17an eta 24an eta urriaren 1ean eta 8an. Izen-ematea zabalik dute dagoeneko: 943 25 10 00 telefonoan edo baketik@baketik.org helbidean. Saio bakoitzeko 30 euro ordaindu behar dira, eta ikasturte osoagatik 100 euro.

Ikastaro horrek baliabide teorikoak eta praktikoak eskaintzen ditu: alde batetik, hezitzaile heldu gisa euren burua hez-

teko; eta beste alde batetik, Lehen Hezkuntzatik Batxilergorainoko adin eta mailetan hezteko.

'Bizikasi' pedagogia

Familien eta hezitzaileen elkar-gune gisa sortu zen Baketik-en gurasoen eskola, ardatz baten inguruan: pertsona izaten hezten erakustea, bai etxean, bai eskolan, bai gizartean.

Proposamenak Baketik-ek sortu eta entseatu duen pedagogia du oinarri: *Bizizikasi*, hobetzen ikasteko pedagogia. Bi kontzeptu integratzen sinergiaren emaitza da: bizipena eta ikaskuntza.

Alecopek automobilgintzaren arloko hezkuntzaren gaineko hitzarmena sinatu du Marokorekin

Alecopek hitzarmena sinatu du Marokoko Gobernuarekin. Horren arabera, hurrengo urtean martxan ipiniko duten automobilgintza arloko hezkuntzako zentro nagusia kudeatzeaz arduratuko da. Aurreikuspenen arabera, 800 ikasle pasatuko dira urtero. Proiektu hori Industriaren Garapenerako Emergence Planaren barruan dago, eta bertan, Mondragon taldeak Zaragozako Komerztzio Ganbara eta parke horretako sustatzaile nagusi Atlantic Free Zone (AFZ) izango ditu bidelagun, besteak beste.

20 Focus berri, Km0

Berdina, baina askoz ere merkeagoa



Batez besteko kontsumoa 4,6-6,9 l/100 km. CO2 igoerpenak 119-159 g/km. Eskaintza hau stockean matrikulatuta dauden autoentzat da, izakinak agortu arte.

MUGARRI AUTOAK

Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Feel the difference

Bi orientatzaile etorriko dira Lanbidera, gaur egun dagoenaren errefortzu gisa

Hiru mila lan-bilatzaileri laguntzeko pertsona bakarria dago

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Enplegu Sailak jakinarazi du lan-orientatzaile sare handia izango dela Lanbideko bulegoetan. Arrasateko Nafarroa Etorbideko bulegoan –SEPE, lehengo INEM, eta Lanbide batzen dituen– bi espero dituzte. Baina beharbada askok ez dakite dagoeneko ia hiru urte daroala lanean orientatzaile batek, Ainhoa Cendoya bergararrak. Lanbideren egoitzan bulegoan –bigarren solairuan– egoten da.

Bakarria, 3.000 lagunendako

Arrasateko bulegoko zuzendari Elena Mondragonek hauxe diosku: "Ez dakigu noiz etorriko diren beste bi orientatzaileak; baina, benetan, beharrezkoak dira". Izan ere, Ainhoa Cendoya bakarrik dago 3.000 lan-eskatzaile atzitzeko, eta "ezinezkoa" dela esaten digute biek.

Tokia Lanbiden izango duten bi orientatzaile berriez gain, Lanbideren Zentro Kolaboratzaile sarean beste batzuk egongo dira: Aretxabaletako Lanbide Eskolan dagoen orientazio zerbitzua, Glo-



Elena Mondragon, Lanbideko bulegoko zuzendaria, eta Ainhoa Cendoya, orientatzailea. | LEIRE KORTABARRIA

ria Gonzalezen ardurapean; Man-komunitatean beste bat, eta Arrasateko eta Bergarako udaletan bana.

Mondragonek hauxe diosku: "Hona etortzen diren askok ez

dute euren egoera hobetu nahi prestakuntza bidez; langabezia prestazioa kobratu nahi dute, besterik ez. Baina batzuek badute interesa, eta horiei laguntzeko ez dugu nahikoa baliabiderik.

Espero dugu orain, kompetentzien transferentziak egin direnetik eta bi orientatzaile berri horiekin, gai izango garela zerbitzu hobea emateko". Bere esanetan, orientazio horren bila joaten direnak

krisi "aurretik inoiz langabe izan ez direnak" dira, batik bat.

Behar orokorrak eta puntualak

Orientatzaileak banan-banako diagnostia egin eta motibazioa eta tresnak ematen dizkio lan-eskatzaileari. Bere zeregina azaltzen digu Cendoyak: "Lehenengo, bere historiala ateratzen dut, eta hitzordua egiten dut berarekin, jakiteko ze ikasketa dituen, ze esperientzia, ze helburu dituen... Curriculumik ez badauka, egiten laguntzen diot. Hurrengo pausoa kanalak identifikatzea da: nora jo dezakeen –lagunak, ingurukoak, prentsa, Internet...–, modu pertsonalizatuan. Hortik aurrera, bere beharren arabera batzen gara: esaterako, ikasketarik ez badauka, ikasteko ze aukera dituen esaten diot; lan-elkarrizketa landu nahi duenarekin, horixe lantzen dut; bere baliabideei probetxu ateratzen laguntzen diot".

Behar puntaletarako ere laguntzeko dago: "Inor urduri baldin badago lan-elkarrizketa bat duelako, horren inguruko jardunaldi bat egiten dut berarekin".

Aktiboa izan behar da

Hori bai; lana topatu nahi duenak bere aldetik ipini behar du, eta hori azpimarratzen dute Lanbideko ordezkariok: "Batuetan, mendekotasun bat sortzen da orientatzailearenganako, baina lan-eskatzaileak lana modu aktiboan bilatu behar du".

Gipuzkoak krisian egin duen lana aitortu du Bruselak

Adegi pozik dago Europako Batasunak Gipuzkoa positiboki aipatzen duelako bere txosten baten

L.K. | ARRASATE

Europako Batasuneko Lurraldean Batzordeak Gipuzkoaren lana aitortu du bere 2011 Kri-siaren Aurkako Planean, krisiaren aurkako politikak eta haiek jarraitzeko tresnak egi-tegatik. Adegik, Gipuzkoako enpresaburuen elkarteak, ekimen horietan parte hartu du, eta pozik azaldu da Europako Batasunak egindako aipamen on horregatik. Hala, elkarteak esan du "Gipuzkoako elkarlan publiko-pribatuari babesa" ematen diola aipamen horrek, eta elkarlan horrek "etorkizunean jarraitu beharko" lukeela.

Europako interesatuenak

Lurraldean Batzordeak, txosten horretan, Europako lurralde eta hiriak krisiaren aurka egiten dabil-tzan politikaren gainean jardun du. Helburua izan da haien egoera eta tokian tokiko erakundeek egin dituzten politikak aztertzea.

Txosten horrek Europako 27 lurraldek aurrera eramane dituzten politika eta neurri nagusietako batzuk zein haiek jarraitzeko erabili dituzten

tresnak identifikatzen ditu. Halaber, Europako lurraldeek Ekonomia Susperitzeko Euro-pako Plana zelan ikusten duten eta bertan zenbateraino parte hartzen duten ere jasotzen du. Bada, azken bi urteotan martxan ipini diren halako neurrien inguruan interes handiena duten lurraldeen artean kokatzen du Gipuzkoa.

Mondragon, eredu

Aipamen positibo gehiago izan dira Bruselan. Izan ere, CECOPEk –Europako Lan Bazkidetuko Koo-peratiben Konfederazioa– Mondragon Taldea eredutzat jarri du krisi ekonomikoaren aurrean bizi-iraupena eta aurre egiteko indarra erakusten duten talde gisa. Joan den eguaztenean izan zen hori.

Europako plataformak esan zuen Arrasateko negozio ereduak "beste ohiko enpresa batzuek baino hobeto hartu ditu atzerapauso aldiak". CECOPen iritziz, taldeko langile-jabeek erabaki-hartzeetan duten inplikazioa "erabakigarria" da "krisiari aurre egiteko estra-tegiak diseinatzeko".

Fabian Bilbao izango da Etxetresnen negozio nagusiaren zuzendaria

L.K. | ARRASATE

Fabian Bilbaok Fagor Taldearen Lerro Zuria hartuko du bere ardurapean, Etxetresnen negozioaren %90, eta Hego Euskal Herrirako eta Espainiarako etxetresna dibisioaren zuzendari berria Ander Terradillos izango da.

Taldean, 1993a ezker

Fagorrek esan duenez, biak ala biak Fagorri "oso lotutako profesionalak" dira, eta euren ibilbidearen zati handi bat Fagorren egin dute.

Fabian Bilbao Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatean. 1993az geroztik dago Mondragon Taldean, eta hainbat postu bete zituen Etxetresnetako zuzendari orokor izan arte. Gaur egun, Geysler-Gastech SA eta Ecolec Patronatuko presidentea ere bada Bilbao.

Bestetik, Ander Terradillos Euskal Herriko Unibertsitatean lizentziatu zen Enpresa Zientzietan, eta Ingalaterrako Wolverhampton-eko Unibertsitatean MBA in International Studies egin zuen. Fagor Etxetresnetako kide da 1999az geroztik, eta 2007tik hona Egoketa Negozioaren gerentea izan da.



Fabian Bilbao. | MONDRAGON

Asian, elkarlan bila

Fagor Etxetresnak taldea Hego Euskal Herriko eta Espainiako lerro zuriko multinazional bakarra da, eta Asian sartzeko elkar-lana lantzen dabil, Fabian Bilbaok *Expansion.com*-i esanda-koaren arabera.

Bilbaoren hitzetan, "azken hiru urteotan Europako merkatua %10 txikitu da" eta Asian eta baita Ameriketara ere egiteko "akordioak, elkarlanak edo fusioak" egiteko sektoreko beste talde batzuekin elkarrizketak areagotu ditu Fagorrek. Asmoa da urtebeteren epean Asiako lankide bat edo bi lortzea, dio *Expansion.com*-ek.

Bankuek aholkularitza kobratu ahalko dutela salatu du ADICAEK

Bankuen Gardentasun Ordena -Proiektua egiten dabil Ekonomia Ministerioa, eta ADICAEK salatu du banku eta kutxei kobratzeko eskubidea emango diela bere produktuen gaineko informazioa eta aholkularitza emategatik. ADICAEren arabera, kontsulta-ordua 600 euro arte kobra dezakete. Horrez gain, swap-ak legeztatuko dituela salatu du. ADICAEK azaroko hautagaiekin kontaktuan jarriko dela esan du, kontsumitzaileen aldeko arauak eskatzeko.

Enpresak sortzen laguntzeko zerbitzua jarriko da martxan

Industria eta Berrikuntza sailburu Bernabe Undak zerbitzu berri bat martxan jarriko dela iragarri du: Ekintzailtzaren Euskal Zerbitzua, enpresak sortzea bultzatu nahi duen Eusko Jaurlaritzaren bulegoa.

Sailaren kudeaketari esker 130 enpresa berri jarri ziren martxan iaz, eta aurreko urtean, 112. Oinarri teknologiko berritzailea duten konpainiak dira, % 80ko bizirau-penarekin eta gutxienez hiru lanpostu sortzen dituztenak.



Jose Antonio Igartza eta Jesus Torres, martitzenean, Antzuolako Torresoroan egindako aurkezpenean. | MIRIAN BITERI

Jose Antonio Igartza eta Jesus Torres | Matz-Errekako liburuaren egileak

"Merkatuaren eraso guztiak gainditu ditugu, eta egun, hor jarraitzen dugu"

- ▶ 50. urteurrenaren harira, enpresaren ibilbidearekin liburuia egin dute
- ▶ Igartzak eta Torresek 1961etik gaur artekoaz eta etorkizunaz jardun dute

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Antzuolako Matz-Erreka enpresaren 50. urteurrenaren harira, *Matz-Erreka, Pertsonen begira dagoen enpresa* izeneko liburuia egin dute. Horren historia eta ibilbidea jaso dute argitalpen horretan, hastapenetatik gaur egunera arte, eta argazki ugari hornituta dago. Enpresan 40 urtetik gora daramatzaten Jose Antonio Igartza eta Jesus Torresek izan gara, liburu horren nondik norakoak ezagutzeko.

Liburuia ez du pertsona bakar batek egin. Zeintzuek egin duzue?

Jose Antonio Igartza: Gurekin batera, Pello Errasti, Marisa Aristi eta Basilio Ormazabal ibili dira liburuia egiten. Dena dela, laguntza izan dugu. Enpresako sekzio bakoitzeko historia egiterakoan, zerbait esateko dutenekin izan gara; lau sekzio ditugu Matz-Errekan.

Jesus Torres: Fundatzaileen (Inazio Aristi, Luzio Agirrezabal, Asensio Azkarate, Julian Alberdi eta Inazio Maria Basterra) laguntza ere izan dugu; horietako bi bizirik daude oraindik.

Nolatan sortu zen liburuia idazteko ideia?

J.A.I.: Beste hainbat kooperatibak zer egin duten ikusita, guk ere

pentsatu genuen jende askok ez duela ezagutzen Matz-Errekako historia. 50. urteurrenaren harira, bazkari edo irteera bat antolatzeaz gain, liburuia idaztea ere bururatu zitzaigun. Bazkide eta enpresa inguruan dabilzan guztiei zuzenduta dago, eta, haiengana heltzeko asmoz, gazteleraz eta euskaraz idaztea erabaki dugu.

Zer kontatzen da liburuan?

J.T.: Matz-Errekako historia eta ibilbidea jaso dugu; Bergarako hastapenetatik gaur egunera arte. Sekzio bakoitzean izandako bilakaera ere azaltzen da. Finkapen elementuekin hasi ginen, eta gero, plastikoak, automatismoak eta ate automatikoak sortzen joan ziren.

Urte asko dira. Bizipen haiek gogoraraztea kostatu egin zaizue?

J.T.: Liburu simplea egiten saiatu gara, irakurtzeko erraza dena. Lau hilabeteko lana izan da; egubakoitzero batu gara. Ziurrenik, zerbait ahaztu egingo zitzaigun, baina tira... Guztion artean egindako lana izan da, eta horrek asko erraztu du lana. Horregatik, liburuak ez du egilerik, fundatzaileen lana bakarrik jarri dugu.

J.A.I.: Halaxe da. Izenburuak dioten moduan, liburuaren kontzeptua da enpresak egiten dituela pertso-

nak, eta, hortaz, pertsona bakoitzaren merituak ez ditugu jarri. Denon helburua izan da Matz-Errekak 50 urte betetzea. Bestalde, argitalpena argazki ugari hornituta dago. Irudi asko ez genituen, eta horiek lortzea kostatu egin zaigu. Historia modu grafikoan islatzen saiatu gara, kronologikoki.

Anekdotarik badago?

J.T.: Oso gutxi daude. Ahalegindu gara anekdota pertsonalik ez sartzen, Matz-Erreka lagun askok osatzen dugulako eta anekdota asko kanpoan geratuko lirakeelako. Hori ekiditen saiatu gara, lan informatiboa eginda.

40 urtetik gora daramatzazue Matz-Errekan. Asko aldatu da enpresa ordutik hona...

J.T.: Bai, asko. Kontuan izan behar dugu lau bazkide hasi zirela eta egun 300 langile inguru dituela. Instalazioen modernizazioaz gain, lan egiteko modua eta langileen pentsaera ere asko aldatu da.

Matz-Erreka inoiz ez da bereiztu puntakoa izateagatik, eta azken urteotan ondo doa negozioa. Egindako lanagatik eta langileen kolaborazioagatik izan da posible hori.

Gizartea ere aldatu da...

J.A.I.: Hala da. Sasoi hartan, diktadura baten ondorioak zirela-eta

edo, lan egiteko beste modu bat zegoen. Lehen, zailtasunei denon gogoarekin eta esfortzuarekin aurre egin behar genielako garbi genuen, baita onurei ere. Barneratuta genuen enpresa aurrera ateratu beharra zegoela. Zailtasun handiak pasa ditugu, gutxi edo ezer kobratzen ez genuen hilabeteekin.

Garai hobeak heldu dira. Dena dela, gaur egun, elkartzaren mentalitate hori aldatzen doa, gutxienez geratzen bada ere. Egundak, ez da horrenbeste partekatzen; helburuak jartzen dira, baina bazkide guztien artean ez dira partekatzen askotan.

"Bazkide eta enpresa inguruan dabilzan guztiei zuzenduta dago"

"Liburu simplea egiten saiatu gara, irakurtzeko erraza dena"

Kooperatibismo kontzeptuaren krisia igarri duzue zuek ere orduan...

J.T.: Hala da. Ez da berdina 40 edo 300 langileren mentalitatea. Ezin dituzu menderatu; guztiek berdin pentsa dezatela ezinezkoa da.

J.A.I.: Dena dela, diferentzia bat daukagu, eta hori inportantea da: Matz-Erreka nagozioka banatuta dago, nork bere organizazioa du. Baina, artean ere, helburu orokorrei begira zailtasunak daude. Zuzendaritzatik gogor dihardute horretan, eta etorkizunari begirako lan bat da kooperatibismoaren kontzeptua berreskuratzea.

Horren harira, zelan ikusten duzue etorkizuna?

J.T.: Merkatua ez dago oso ondo, baina Matz-Errekak garai okerragoak bizi izan ditu. Esan bezala, egonkortasunean ez gara inoiz puntakoa izan, baina merkatuaren eraso guztiak gainditu ditugu, eta egun, hor jarraitzen dugu. Matz-Erreka baino handiagoak eta ospetsuagoak izan diren enpresak desagertu egin dira.

J.A.I.: Gauza bat daukagu ona: hain justu, negozio bakoitzak duen plan estrategikoa, eta proiektu garrantzitsuak; eta ikertzen ere lanean gabilta, merkatuan jarraitu ahal izateko.

"Negozioa banatuta dago, eta nork bere organizazioa du"

"Ikertzen ere lanean gabilta, merkatuan jarraitu ahal izateko"

ZABALIK

MIKEL LEZAMIZ
http://goiena.net/iritzia/



Mundu osoa krisian

Irlanda, Grezia, Portugal jadanik krisi ekonomiko osoan sartuta daude eta laster Espainia, Italia eta beste herrialde gehiago sartu daitezke gainbehera batean. Kontsumoa geldituta dago ia Europa osoan eta Ipar Amerikan ere, eta badirudi ekonomia beherakadan sartuko dela herrialde askotan behintzat.

Inbertsio publikoak agortuta daude eta gobernuaren gastu publikoak kontrolatzeak ekonomiaren geldialdia ekarriko du.

Badirudi gurrupil zoroan sartuta gaudela eta ezingo garela irten. Aritu batzuek azken honetan diote mundu osoan kredituaren krisia dagoela eta etorkizuna kredituekin eraiki dugula azken mende erdian, eta gaur egun hain zorpetuta gaudenez ezingo dela dena ordaindu.

Euskal Herriak ere asko sufritu behar du hurrengo urteetan, langabezia ez delako desagertuko eta krisia oraindik gogorragoa izango delako. Inbertsio enpresariala eta esportazioak ere beherantz doaz. Opor buelta batzuentzat gogorra izan da lantegiko atek itxita aurkitu dituztelako. Eta hori gogorra da benetan.

Normalean ni baikorra naiz eta horrela jarraitu nahiko nuke, baina egoera beltz honekin zaila daukat nire sentimenduak alaiagoak izaten. Zer egin?

Lehenik eta behin, iruzurra bukatzen saiatu behar dugu. BEZ edo IVA delakoan, IRPF eta elkarteen irabazietako kobraketa behar dena baino heren bat gutxiago kobratzen omen da.

Bestalde, badirudi kooperatiba askorentzat ere datorren urtea 2011 baino eskasagoa izan daitekeela eta zerbait berria egitea pentsatu beharko dugu. Esportazioak gehitzen saiatu behar dugu, produktu berriak ekoiztu, barnean gerrikoa gehiago estutu eta elkartasuna kooperatiben artean gehitu, hobeto aurre egin ahal izateko egoerari.

Garai txarrak datozkigu eta aurre egiten jakin behar dugu herri bezala, geure sena, ahaleginak eta ahalmenak praktikan jarri. Ziur naiz irteten jakingo dugula.

"Lehenik eta behin, iruzurra bukatzen saiatu behar dugu"

USTEAK USTE

MAIDER ARREGI | marregi@goiena.com

Juan Lizarralde Beillotzakoa

Kastako gizona, artzaina dugu Arantzazuko Beillotza baserriko Juan Lizarralde *Juane*. 85 urte bizkarrean, 85 urtetan makina bat istorio eta bizipen dituena. Seguru horrelako artzainen bat badagoela Euskal Herrian, baina benetan horren autentikoa dena badaukat duda... Goienako kazetaria eta kamera sorpresaz hartu zituen Beillotzan. "Zuri nok esatzen ba nei etaratzeko?", zioen harridurazko begi bixi-bixi horiekin. Pozik eta hunkituta jaso zuen Gipuzkoako artzainek egindako omenaldia Legazpin, merezita! 60 ardi latxa mutur beltzen zaindaria, bere bizitokitik ateraz gero, txoria kaiolan sartzea edo arraina uretatik ateratzea bezala izango litzateke.

KALE INKESTA

Zer iruditzen zaizu diputatuen ondasuna publiko egitea?



VICTORINO JUAREZ
ARRASATE

"Zenbat diru irabazten duten jakiteko eskubidea dugu. Politikan dirua irabazteko daudenak kalera bota behar dira".



CHARO ALCOGER
IRUÑA

"Ondo iruditzen zait. Merezi dutena baino askoz gehiago irabazten dute. Argi geratu da ez dagoela politikari pobrerik".



AGRIPINA SANCHEZ
ARRASATE

"Beraien ondasunak politika egiteagatik lortu badituzte kalera botako nituzke. Politikari gehiegi ditugu".



JOXE ZABALA
ARRASATE

"Nire ustez, esan dutena baino gehiago dute. Merezi dutena baino gehiago irabazten dutela uste dut".

HANDIK ETA HEMENDIK

Abiadura handiko obrak

Urko Apaolaza
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

AHTaren obretan hildako bosgarren behargina izan zen atzokoa.

Bost hildako hiru urtean, eta beste hainbat zauritu larri -Lazkaoko gazte batek hanka galdu zuen duela gutxi.

Datu hotza da, baina hoztasunetan hasita, zer estatistikak baino hobeto.

Osalaneko web orrialdean lan istripuen zerrendak eta konparaketak egiteko aukera dago (datu ofizialak, kontuz).

2008ko uztailetik, AHTaren obretan lehen hildakoa izan zenetik alegia, 2011ko maiatza arte -azken eguneraketa hortxe amaitzen da-, 24 langile hil ziren EAEn lan-istripuen ondorioz.

Datu horretan ez dira sartzen bajaran zeudela hildako langileak -gaixotasunengatik eta abar- edo *in itinere* hildakoak.

Zifra horretan ere ez da sartzen atzo hildako langilea, noski, bai ordea aurretik AHTan hildako lau lagunak.

Beraz, laneko heriotza traumatikoen %16,7 AHTaren

obretan gertatzen dira.

Beste modu batean ere aztertu daitezke zifra hauek.

Eusko Jaurlaritzak, Adif-ek eta beste zenbaitzuk sustaturiko *www.euskalyvasca.com* helbidean sartzen denak ez du gaur aurkituko atzo Tolosako Aldaba Txikin izandako heriotzaren berririk.

Bai ordea abiadura handiko trenaren onurak nabarmentzen dituen zenbait atal.

Horietako batean diote AHTaren obrek 6.900 lagunentzako lana sortuko dutela.

6.900 pertsonako plantilla duen enpresa handi bat.

Izango dira gutxiago... baina tira.

Norbaitek imajinatzen al du, Iruñeko VWen (4.500 langile inguru), Gasteizko Mercedesen (3.200 langile) edo Beasaingo CAFen (2.500 langile), hiru urtetan 5 hildako gertatzea?

Izango ziren paroak eta komeriak, bai horixe.

Sindikatuak salatu dute AHTaren obretako langileen baldintzak aztertzeo zailtasunak izaten dituztela.

Esan dute langile asko ez daudela bertoko hitzarmenetara lotuak, baizik eta jatorriko beren herrialdekoetara -bost hildakoetatik lau atzeritarrak ziren-.

Diote 12 orduko lan egunak egiten dituztela...

XIX. mendean *Norteko Trenbidea* egitera iritsitako piamontetarrek etortzen zaizkio bati burura, edo Panamako kanala egin zuten txinatar "kolonoak".

Jadanik euskal "Y"-aren zati guztiak esleiturik daude eta gehienetan hasiak dira lanean.

Tolosako zatiarekin 2011ko otsailean hasi ziren, 3,8 kilometro ditu, 104,7 milioi euroko aurrekontua eta 26 hilabetetan amaituta behar du.

Hitz gutxitan: abiadura handiko obrak.

Heldu-ezinean, guztiok

Bixente Serrano Izko
http://www.berria.info/blogak/

Lagun batena da, baina nirea izan zitekeen:

-Agure berde ikusten haut -txikiteotan kide bati lagun gazteteagoak.

-Oker, gizona! Agure, bai, hasi nauk; berde, gazte-gaztedanik.

Eta nire kolkorako: gaztetan nor ez izan, are egon ere, berde? Bai eta aguretan ere...!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Julen Iriando
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com


Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekarria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEBAGOIENA EZAGUTZEN



Artzai munduan oso ezaguna den bailara agertzen da argazkian. Nola du izena?

Argazkia eta galdera > Jose Fernandez

JAKION

www.jakion.es

Jakionek emandako
Produktu sorta*


* 50 eurotan baloratutako sorta.

PARTE HARTZEKO
Telefonoz: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
SMS bidez. Bidali KLUBA ERANTZUNA
[bazkidearen zenbakia] 215800 zkra

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

Oparitu Goiena Klubeko txartela.



Urtean 48 euro ordainduta askotariko abantailak izango dituzu

2011n atera etekina txartelari

gahir fisioterapia osteopatia

GAHIR FISIOTERAPIA-OSTEOPATIA

Eskoriatza, 943 71 43 41

■ %50 deskontua lehenengo kontsultan.

CLINICA DENTAL BERGARA

CLÍNICA DENTAL BERGARA

Bergara, 943 76 05 77

■ -%10 zerbitzu guztietan

■ -%15 inplanteetan

■ Aho-garbiketa doan,

■ 120 eurotik gorako tratamenduetan

Bazkidearentzat eta familiako batentzat



NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta, 943 08 21 89

■ -%15 zerbitzu guztietan.

ETA HAUETAN ERE BAI



goienakluba 2011

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com
Urteko kuota: 48 €.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Agustin Beitia | EAJko zinegotzia Oñatin (1991-2007)

- ▶ 16 urte egin zituen zinegotzi lanetan
- ▶ Auzoak eta Mendiak batzordeko buru izan zen
- ▶ Orain dela bost urte utzi zuen politika

"Auzoetako baserri guztietako saneamendua egin genuen; kolektore nagusira bideratu genituen"

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Agustin Beitia (Oñati, 1936) 16 urte egin ditu zinegotzi lanetan, 1991tik 2007ra. Lehen hiru agintaldietan Auzo eta Mendiak batzordeko buru izan zen. Baserriarra izanik auzoetako egoerarekin "sentsibilizatuta" zegoen, eta proiektu "garrantzitsuak" egin zituztela esan digu.

Lau agintaldi. 16 urte zinegotzi moduan.

Edozein lan egiteko urte asko dira, baina nik esango nuke askoz gehiago direla zinegotzi moduan lan egiteko. Udaleko lanez gain, familia eta enpresako lana nuen, eta guztia bateratzea oso gogorra izan zen. Dena den, orduko oroitzen oso onak ditut. Auzoak eta Mendiak batzordean oso gustura ibili nintzen.

Badira bost urte politika utzi zenuela. Ahaztuta daukazu?

Politikan egoten diren albisteak jarraitzen ditut, baina kanpotik. Hedabideetan publikatzen diren albisteak irakurtzen ditut, eta botoa ematera joaten naiz.

Oro har, oroitzapen onak dituzula esan diguzu.

Bai, hala da. Lan handia egin genuen, eta orduan Udalean zeuden gainerako alderdietako zinegotziekin hartu-eman ona izan genuen.

Zeintzuk dira egindako proiektu aipagarrienak?

Auzoen alde lan handia egin genuen gure batzordean. Auzo-bideetan hormigoia bota genuen, eta auzotaraino edateko ura eroaten hasi ginen. Aurreko agintaldian hasi ziren urarekin. Uri barrin lanak bukatuta zeuden, eta hasita Olabarrietan, Murgian eta Berezaon. Horiek bukatu eta gainerako auzo guztietara eroan genuen ura, baita Urrexolara eta Araotzera.

Baserrietako saneamendua ere egin zenuten.

Oñatik 16 auzo ditu, eta 13 auzotan egin genuen saneamendua. Larrañan hasi ginen, eta ondoren

egin genituen Berezaon, Murgia, Lezesarri... Araotzen, Urrexolan eta Arantzazun lanak egin barik geratu ziren.

Gustura hartuko zuten auzotarrek saneamendua.

Bai, kontuan hartuta Oñati dela herri bakarra baserri guztietara saneamendua eginda duena. Ur zikinak eta etxeo urak sarera, kolektore nagusira eroan genituen. Beste herri batzuetan hobi septikoak dituzte, baina ez saneamendua baserriz baserri.

Auzo-bideetan hormigoia bota zenuen, baina toki batzuetan asfaltoa ere bai.

Aldapa handiak zeuden tokietan asfaltoa bota genuen, eta herri-



Agustin Beitia –bigarrena eskuinetik goiko ilaran– EAJkoekin. | GOIENA



Agustin Beitia, Santa Marina plazan. | MIREIA BIKUÑA

tarrak paseoa ibiltzen diren tokietan, Zañartun, Olabarrietan eta Murgian, besteak beste, asfaltoa bota genuen.

Ni zinegotzi egon nintzen urteetan auzo-lan handia egiten zen. Auzotarren artean lan handia egin zuten.

Arantzaren bat?

Ez. Proiektu batzuk bertan behera utzi genituen, adostasunera heldu ez ginelako. Baina egin beharreko lan handienak eta inportanteenak egin genituela esango nuke.

Hiru alkaterekin egin duzu lan.

Angel Iturberekin 12 urte egon nintzen, Andoni Gartziaekin hiru urte eta bakarra Lourdes Idoigarekin. Hartu-eman zuzenena Iturberekin izan nuen. Alkate ona izan zen. Andoni Gartzia egon zenean, Joxe Fernandezek egiten zituen gehienbat alkate lanak.

Asko aldatu da Oñati ordutik.

Bai, itxura asko aldatu du. Batez ere, lan handiak egin dira irisgarritasun aldetik. Bestalde, hilerri inguruan, herriguneko auzoetan, postetxe aurrean eta Herriko Plazan egindako lanek Oñatiren bizi kalitatea hobetu egin dutela esango nuke.


"Beste alderdietako zinegotziekin hartu-eman ona izan nuen"

"Zinegotzi egon nintzen urteetan, auzo-lan handia egiten zen"

MONZONEN PASTORALA

GOIENA TELEBISTA | ERREPORTAJEA

IRAILAK 12, 13:50 | IRAILAK 13, 22:33 | IRAILAK 14, 13:50



HERRIAK

ANTZUOLA

Urtebeteko epean Euskaltelek zuntz optikoa eskainiko du

- ▶ Udalbatzak joan zen astean onartu zuen Euskatel eta Udalaren arteko akordioa
- ▶ Sagasti eta Antiguako eremuetan eraikiko dituzte beharrezkoak diren azpiegiturak

ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA

Udalak eta Euskaltelek lankidetzaz hitzarmena adostu dute herrian telekomunikazio azpiegiturak sustatzeko. Hain zuzen, joan zen martitzenean egindako osoko bilkuran onartu zuen hitzarmena Udalbatzak.

Horrek esan gura du lanak egiten direnean Euskalteleko kable bidezko telebista digitala ikusteko eta belaunaldiko banda zabaleko zerbitzuak erabiltzeko aukera izango dutela hala gura duten herritarrek. Euskalteleko komunikazio arduradunek azaldu dute urtebeteko epea izango dutela lanok egiteko: "Urtebeteren buruan zerbitzua emango diegu lehenengo etxebizitzetara, beharrezkoak diren baimenekin".

Lanak aurtan bertan

Lanak herritarrengan ze eragin izango duten galdetuta, telekomunikazio enpresak azaldu du zirkulazioan "ahalik eta eragin txikiena" eragiten saiatuko direla. Euskaltelek konpromisoa hartu du herrian komunikazio zerbitzua garatzeko eta zerbitzuak zabaltzeko eginkizunak eta horretarako beharrezkoak diren azpiegiturak ezartzeko.

Telekomunikazio sarea Antzuolako hirigunean hedatuko da; bi aldean artean negoziatuta, etorkizunean eremu hori hedatu egin ahal izango da.

Azpiegiturak, bi gunetan

Bestalde, Udalak konpromisoa hartu du Euskalteli baimena emateko Udalaren lurretan beharrezkoak diren azpiegiturak eraikitzeko. Zehazki, ondorengo bi espazioak erabiltzeko baimena eman dio telekomunikazio enpresari: Sagasti auzoan, udal frontoiaren aldamenean eta Antigua auzoan, 11. zenbakiaren aldamenean. Hitzarmenean adostu dute espazio horiek ez dutela 6 metro koadro baino gehiago hartuko.

Zerbitzua eskaintzeko egin behar diren lanen aurrekontua 700.000 eurokoa izango da. Aurrekontu horrek sarrera sarbidea eta zerbitzuen hornidura estaliko ditu.

Eskainiko duten zerbitzua

"Aurrerantzean herritarrek aukera izango dute ondorengo telekomunikazio zerbitzuak erabiltze-



Sagasti auzoan, pilotaleku inguruan sortuko dute azpiegitura. | A.E.

ko: telefonia finkoa, interneteko banda zabala -75 megako abiadura-, telebista digitala, eta baita bereizmen handiko telebista ere, 100 kanalekin", azaldu dute Euskalteleko komunikazio arduradunek. Hala, zerbitzu horiek

guztiak operadore bakarrean izateko aukera nabarmendu du Euskaltelek.

Urbanizazio berriak

Akordioan aurreikusten da baita ere aurrerantzean udalerrian

urbanizazio berriak egiten direnean, etxebizitza horien sustatzaileei adieraziko zaiela Euskaltelekin harremanetan jarri behar dutela urbanizatu beharreko eremuetan telekomunikazio-azpiegiturak sartzeko.

Akordioaren arabera Euskaltelek bere gain hartuko ditu azpiegituren mantentze lanak eta hauen kostuak; hala ere, hodieteriaren jabeak azpiegiturak berriro jarriko ditu beharrezkoa izan ezkerero.



Kable bidezko telebista ikusteko aukera egongo da sarea sartzera. | A.E.

DATUA

30

URTE

Sinatzen den egunean bertan sartuko da indarrean hitzarmena eta 30 urteko epea izango du akordioak.

Egin behar diren lanen aurrekontua 700.000 eurokoa da

LEINTZ-GATZAGA

Giro eder eta atseginean ospatu dituzte jaiak asteburuan

- ▶ Folkloreak eta kirolak izan dute garrantzia aurtengo egitarauan
- ▶ Kultura zinegotzia: "Herri afarian ia herri osoa elkartu ginen, giro eta umore onean"

JON BEREZIBAR | LEINTZ-GATZAGA

Giro polita izan dute Leintz-Gatzagan. Herri txikia izanik martxa lasaiagoan joaten dira jaiak, baina, betiere, giro atseginean. Txikienek behintzat izan dute entretenimendu nahikoa puzgarriekin, bariku eta zapatuan, gaztelu eta txirristetan gora eta behera, nekatu arte saltoka ibiltzeko. Nekea aipatuta, izerdi patsetan amaitu zutenak bariku eguerdian aizkolari eta harri-jasotzaileak izan ziren; Ernesto Ezpeleta *Bihurri* eta Goizeder Beltza, egur mozketan, eta Agustín Landarbide 175 kiloko harria altxatuta, plazara gerturatu zirenen txaloak jasota. Erakustaldi berezia izan zen gainera, enborra, 5 metro ingurukoa, bertikalean moztu baitzuten, australiar erara, hain zuzen. Kirolekin jarraituta pilota partiduak arratsaldean eta gauaz rocka nagusi plazan, TLS (Ordizia, Gipuzkoa) eta Arrasateko Aggressive Combat eta Interprete Desconocido taldeekin. Ekitaldirik herrikoiena baina zapatuko afaria izan zen, 170etik gora elkartuta; "ia herri osoa", Iñaki Agirreurreta kultura zinegotziak zehaztu moduan. Ona eta poztekoa da haren balorazioa "antolatze lanetan eginiko lehen urtea izanik, pozik" eta "hurren-go urterako hobetzeko asmoekin" dagoeneko.

Bizikletak, mayak eta pilota

Denetarik izan zuten atzo. Asteburuarekin amaitzeko eta herria girotzeaz Mexikoko dantzariak arduratu ziren, kolonaurreko garaiko zeremonia bitxi eta guzti, gatzagarrak dantzarazten. Goizean mendi-bizikleta martxa izan zen eta arratsaldean pilota partiduak. Eta bukatzeko burrunba Eskoriatzako *batukadarekin* dantza eta zarata.



Enbor mozketeta, australiar erara. | JON BEREZIBAR



Bolo txapelketa, zapatu gauaz. | JULIO CALLEJA



Herri afaria, 170 herritar baino gehiagorekin. | JULIO CALLEJA



Zapatu gauako dantzaldia. | JULIO CALLEJA

LARRAITZ
LEINTZ-GATZAGA

"Puzgarrietan ibiliko gara gaur eta bihar uzten diguten denbora guztia baina asteburu osoa egingo dugu jaietan. Jaietako onena puzgarriak dira eta gehiago ipiniko balituzte, hobeto".

HODEI
LEINTZ-GATZAGA

"Gustatu zaizkit puzgarriak nahiz eta, agian, apur bat txikiak iruditu. Hori bai, nik zezanak ere ipiniko nituzke jaietan. Oso ondo pasatzen dugu eta pilota partiduetara joan gara gero".

ITZAL
LEINTZ-GATZAGA

"Jairik onenak dira herrikoak eta guk ospatzeko kamisetak egin ditugu aurten. Kexa bakarra daukagu: iaz zezen mekanikoa ekarri zuten eta aurten ez, eta guk hori eskatzen dugu".

AMAIA ETA FAMILIA
ARETXABALETA

"Goizean mendi-bizikleta martxa ikustera etorri eta herrian giro polita aurkitu dugu. Mexikarren dantza eta zeremonia hori sekula ikusi gabekoa naiz eta benetan ikusgarri iruditu zait. Giro polita dago domeka goizean".

Skate e



rakustaldia egon zen zapatuan. | JULIO CALLEJA



Uso-tiroa. | JON BEREZIBAR



Bariku gaeko rock kontzertuan, Ordiziako TLS taldea. | JULIO CALLEJA



Gazte kuadrilla, jaietarako prestatutako elastikoekin. | JON BEREZIBAR

ARRASATE

Jolas bitxiak eta musika asko izan dituzte Uribarri-Erguinen

Eguraldia lagun, barikutik domekara arte eutsi dio jai giroak auzoan

J.B. | ARRASATE

Egubakoitzean auzoko bazkariarekin hasi eta atzo Arimazubin egin zuten dantzaldiarekin amaitu zituzten jaiak Uribarri-Erguinen. Denetarik izan dutela ez da gezurra; musikan, rock zaleek La Madriguera eta Lined Hardcore taldeak izan zituzten bariku gauean eta doinu tradizionalagoak atsegin dituztenendako hitzordua domekan izan zen Bilboko gaitarien kalejirarekin. Egubakoitzeko bazkarian gainera Jokin Labaien, Iñaki Viñaspre eta Zigor Enbeita bertsolariak izan zituzten auzotarrek mahaikide. Txondorra jatetxean egin zuten bazkaria.

Jarduera bitxiak

Egitarauak, baina, proposamen berezietarako lekurik ere izan du. Esate baterako, zapatuan, segway ibilaldia egin zuten eliza inguruan eta erruberen gainean barik, lau-hanken gainean ibiltzeko poney eta astoak izan zituzten txikienek Usaetxe plazan. Domekan, ostera, tirolina, rokodromoa eta ohe elastikoak ipini eta etxeko txikiak gelditzerik ez zen egon. Guztietan bitxiak baina garagardo botika kaxekin eraiki beharreko dorreena izan zen, atzo, domeka, egin zutena. Arratsaldean herri kirolak ere izan zituzten aizkolari eta harri-jasotzaileekin eta jaiak amaitzeko erromeria, adin guztietakoentzat. Horixe zen antolatzaileen helburu nagusietako bat aurten.



Kaxekin egin beharreko dorrea. | JULIO CALLEJA



Herri kirolak, Arimazubin. | JULIO CALLEJA



JULIO CALLEJA

ONATI

Sendabelarrak jakin-min, Arantzazun

Artisautza azoka egin zuten atzo Arantzazun, urterokoa, baina aurten sendabelar eta eratorriek arreta berezia izan dute. Betiko saltokiez gain sendabelar, ukendu eta prestatu bereziak ere salgai izan zituzten. Horrez gain, eta gehiago jakin gura izan zutenek, goizean bi aditurekin ibilaldia egiteko aukera izan zuten. Helburua zen belarrak ezagutu eta zelan jaso behar diren ezagutzea. Anaje Narbaiza eta Paulina Kerstock izan zituzten gidari Milikua ingurutako zelaietan ordu bete inguruko buelta baten.



Urtero moduan, kalitate handiko produktuak erosteko aukera izan zuten herritarrek. | JULIO CALLEJA



Barazki, fruta eta gazta lehiaketetako irabazleak sariekirin. | JOKIN BEREZIARTUA

BERGARA

Jende gutxi baina betiko kalitatea aurtengo San Martin ferian

- ▶ Zubiak eta bero handiak kalte egin die aurten azokari eta, beraz, saltzaileei
- ▶ Azokak San Martin plazan eta Muniben elkartu zuten jende gehien

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA

Bero handiegia egiten zuen zapatuan eta askok Bergarara etorri baino nahiago izan zuten beste-

lako planak egin. Eta noski, egubakoitzean jaieguna izateak ere zuzenean eragin zuen: aurten ohi baino jende gutxiago egon da San

Martin ferian. Hala esan ziguten herritar zein baserritarrek. Salmentak, beraz, ohi baino baxuagoak. Hori bai, ohi baino jende

gutxiago egon izanak ez zuen azokan salgai jarri ziren produktuetan inolako eraginik izan. Kalitate altuko gazta, barazki eta frutak eta bestelako hainbat produktu. Ezin dugu ahaztu herritar asko zer dagoen ikusi eta odoloste edo bestelakoak dastatzera joaten direla.

"Akaso, aurtengoa azkena"

Giro ona batez ere goiz eta eguerdi partean baina azoka beherantz doan sentsazioarekin baserritar gehienak. Horra azken 30 urteotan feriarra etorri izan den baserritar

batek esandakoak: "Aurten iaz egon zen jendearen erdia dago. 30 urte daroat etortzen eta akaso aurtengoa izango da azkena; adinean aurrera goaz eta ez dago gazteen erreleborik".

LEHIAKETETAKO IRABAZLEAK

GAZTA

1. Aranburu elkartea. Idiazabal, Gipuzkoa.
2. Ia leze. Ilarduia, Araba.
3. Rikardo Remiro. Eulate, Nafarroa.

BARAZKIAK

1. Jose Manuel Zabalegi. Martutene, Gipuzkoa.
2. Tomasa Larañaga. Antzuola.
3. Esosi Etxeberria. Soraluze, Gipuzkoa.

FRUTAK

1. Kontxita Izagirre. Antzuola.
2. Urtza Sarrionandia. Igorre, Bizkaia.
3. Jose Lonbide. Aretxabaleta.



ARANTZA LOIDI
BERGARA

"Ondo doa eguna, dagoeneko ikusi ditugu azokako postu gehienak. Poltsa betetzeko aprobeztatzen dugu, batez ere, barazkiak erosten ditugu. Gauza goxoak ere dastatzen ditugu; oraintxe sagarra probatzen genbiltzan, ona dago".



JOSE GABILONDO
BERGARA

"Fenomeno doa azoka. Oraindik lehen kalea ikusi dugu bakarrik. Erosi, ez dugu ezer erosiko. Izan ere, ni neu baserritarra naiz eta saltzen dituzten produktuak etxean ditugu. Odolostea dastatzeko asmoa badugu".



MIREN SOROZABAL
BERGARA

"Azoka erdia ikusi dugu eta orain beste erdia ikustea gelditzen zaigu. Urteroko zita da guretzat, ez dugu kalerik egiten. Erosi ez, ez dugu ezer erosten, ikusi. Oraintxe eskatu dugu odolostea eta oso ona dago. Gustura gabilta".



URTZA SARRIONANDIA
SALTZAILEA

"Ondo doa azoka, iaz baino zertxobait hobeto. Hala ere, ez da nahi beste saltzen. Orain dela sei urte hasi ginen etortzen eta dagoeneko ohitura da guretzat. Garai ona da azokarako, orain ikusi daitezke-eta sagar mota gehien".



MIRARI ALTUBE



ONATI

JULIO CALLEJA

200 bat lagun Kurtzebarri Egunean

200 bat lagun elkartu ziren atzo goizean Kurtzebarriko tontorrean. Mendi puntan, haize zakarra zela-eta, mendizaleak leku ezkutu bila ibili ziren. Hala ere, mendi bueltatxo gustura egin zuten nagusi, heldu, gazte eta umeek. Meza esan zuen Ramon Elkorro abade aretxabaletarrak eta ondoren mokadutxo eskaini zuen Murruxio mendizale elkarteak. Saldarik eta jatekorik ez zen falta izan, beraz, ezta trikitixa doinurik ere. Ordubetz bertan egon ostean, beherako bidea hartu zuten mendizaleak.

Jende asko Atzeko kaleko jaietan

Giro ederrean joan dira Atzeko kaleko jaiak. Antolatzaileen arabera, zapatuan batu zen jende gehien: sokamuturrean, garagardo dastatzean eta erromerian hainbat herritarrek hartu zuten parte. Txorimalo eta erraldoiek ez dute hutsik egin, txikienen gozamenerako. Egubakoitzean arazo teknikoek gaueko rock jaialdia atzeratu zuten; gainera, Ulmaren 50. urteurreneko kontzertua zela-eta ez zen jende larregi ibili.

Ingurumenarekiko konpromisoa berretsiko dute datozen egunotan

Mugikortasun Iraunkorraren eta Ibai-Arteren astean harira, ekintza asko egingo dituzte

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Ingurumenarekin lotutako ekitaldi asko antolatu dituzte datozen egunotarako herrian. Batetik, urtero moduan, Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astearren harira, denetarik ekintzak antolatu ditu Udalak hilaren 16tik 22ra bitartean egiteko.

Zapatuan hasiko dira, Biteri plazan, 11:00etatik 14:00etara, jarriko duten segway eta trikke zirkuituarekin. Horretaz gainera, 11:00etatik 15:00etara, emisio txikiko ibilgailuen gaineko *Mugitzeko beste era bat* izeneko erakusketa ikusteko aukera izango da. Besteak beste, auto hibridoak eta elektrikoak, paseoko bizikletak eta tolesgarriak direnak izango dira, toki berean.

Domekan, osteran, urteroko bizikleta bira egingo dute Arrasateko Eskoriatzako plazaraino, bidegorritik. Seber Altube plaza-ki abiatuko dira, 10:00etan. Bestalde, martitzenean, irailak 20, *Familia giroan bizikletaz bidaia-tzea: zure neurriko proposamen bat* izeneko ikus-entzunekoa ikusi ahalko da Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 19:00etan.

Materiala jasotzen

Azkenik, egunean, mugikortasun eta irisgarritasun tailerrak egiteko asmoa dute Seber Altube plazan, 17:00etan. Hain justu, irisgarritasuna lantzeko jarduerak eta mugikortasunari buruzko hausnarketa egingo dute han.

Bestalde, bizikleta azokarako egoera onean dagoen materiala jasotzen dabilta dagoeneko. Bihar eta egunean eroan ahalko da udal azokara, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Udaletik gogorarazi dute mendi, paseo edo errepedeko bizikletez gain, hau-



Umeak bizikleta gainean, iazko Mugikortasun Astearren harira antolatutako zirkuituan. | JOKIN BEREZIARTUA



Merkemerkaua egingo dute zapatuan. | GOIENA

rrenak, patinak, patineteak, kasakoak, gurrupilak, eskularruak eta maillotak jasoko dituztela. Zapatuan egingo dute *Bir-zikleta* izeneko bigarren eskuko bizikleta merkatua, 11:00etatik 15:00etara, Seber Altuben. Mugikortasun asteak irauten duen bitartean, gainera, hiri barruko autobusean doan ibili ahalko da.

Ibai-Arte, arrakastaren bila

Bestalde, aurreko urteotako arrakasta errepikatzeko asmoz, Merkataritza Berdearen Astea antolatu du Ibai-Arte elkarteak hirugarrenez; irailaren 16tik 24ra bitartean izango da. Egitarau zabal gertatu du. Egubakoitzean, Txatxilipurdiren eskutik, birziklatutako materialekin diru-zorroak eta sormen tailerrak egingo dituzte Seber Altuben, 17:00etan.

Zapatuan, Merkemerkaua egingo dute. Udaberri-udako behe-erapen azoka 10:00etatik 21:00etara egingo dute Arrasateko kaleetan zehar jarriko dituzten saltokietan eta Biteri plazan egongo den karpako postuetan. Egun berean, *Enclave de sol: enchufados al sol* ikuskizuna eskainiko dute Seber Altuben, 17:00etan. La Banda Manzana taldeak energia berriztagarriak erabiliz sortutako musika emanaldia da hori.

Hilaren 20an, merkataritza arloko profesionali zuzendutako jardunaldia izango da Kulturateko Garibai gelan, 20:15ean; eta aste-ari amaiera borobila emateko, irailaren 24an, 100 orgaren banaketa egingo dute. Hilaren 1etik 16ra erosketak egiteko 100 orga zozketatuko dituzte kide diren saltokietan erosketak burutu dituzten artean. Zozketan sarituak direnek orgak jasotzeko aukera izango dute 13:15ean, Seber Altuben.

Lapurrez gain, 50 euroko billete faltsuak dabilta orain kaletik

Hiruzpalau tabernatan agertzeaz gain, Onceko saltzaile batek ere jaso du

M.B. | ARRASATE

Lapurrek ez dute oporrik hartu gurean eta, hortaz, azken asteotan ere lapurretak izan dira herrian. Abuztu amaieran, esaterako, Olarte kaleko If lurrindegian sartu ziren, alarma manipulatu eta ateko sarraila apurtu ostean. Gizonezkoentzako perfumeak eta tratamenduak lapurtu zituzten. Horretaz gainera, Lizarra taberna ere bisitatu zuten

lapurrek. Joko-makinan zegoen dirua eroan zuten.

Bizpahiru tabernetan

Bada, lapurretez gain, 50 euroko billete faltsuak ere agertu dira azkenaldian; hain justu, bizpahiru tabernetan. Udaltzaingotik jakinarazi dutenez, taberna horietako langileak billeteak faltsuak diren edo ez irakurtzen duen makinan pasa eta han ikusi zuten

faltsuak zirela. Horretaz gainera, ONCEko saltzaile batek ere jaso zuen horrelako billetea; egunean batutako dirua banketxera eramanean ohartarazi zioten.

Horrelako kasuetan berehala salaketa jartzea da gomendatu dute, billete faltsu batekin ordaintzea delitua da-eta. Legeak isun ekonomikoa eta kartzela zigorra aurreikusten du horrelakoetan.

Zapatuan egingo dute iraileko baserriarren azoka, Seber Altuben

Udako oporren geldiuenean ostean, zapatuan, hilak 17, egingo dute hileko hirugarren asteko baserriarren azoka. Betiko moduan, 09:00etatik 14:00etara bitartean, Seber Altube plazan egingo dira jarrita postuak.

Arrasateko Udaleko Enplegu eta Garapen Ekonomiko Sailaren laguntzarekin egindako merkatu horretan, ortuan dauden sasoiako produktuak erosi ahal izango dira. Hilero moduan, erosleen artean baserriarren produktuez beteriko saskia zozketatuko dute.

Ekin Emakumeak elkarteak bi ikastaro hasiko ditu egunotan

Arrasateko Ekin Emakumeak elkarteak hainbat ikastaro gertatu ditu datozen hilabeteotarako. Aurrenekoa eskulanean gainekoa da; gaur hasiko da eta abenduaren 20ra arte iraungo du. Eguaztenean, osteran, orratz-lanen ingurukoa hasiko da. Abenduaren 15era arte luzatuko da.

Ekin Emakumeak elkarretetik jakinarazi dute interesa dutenek Pablo Uranga kalean duten egoitzara jo behar dute la, edo 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefono zenbakietara deitu.

"Bidegabea" den isunari musikarekin aurre eginez

Realaren partidu baten jasotako isuna ordaintzeko jaialdia, hilaren 17an

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

2009ko udaberrian Realak Salamancan jokatzeko zuten partidutik isunarekin itzuli ziren Arrasateko bi gazte, euskal presoan aldeko maindiera erakustegatik. Horrez gain, desordena publikoa eta polizien aurkako erasoak ere leporatu zieten.

Gazte bakoitzak 4.000 euro ordaindu beharko ditu eta sententziari lau alditan errekurtsioa jarri dioten arren, isuna ordaindu egin beharko dute. Zigorra "bidegabea" dela uste dute eta salatu dutenez, modu oldarkorren kanporatu zituen Espainiako poliziak El Helmantico futbol zelaitik.

Zigor ekonomikoaz gaiz, urtebetez futbol zelaietara sartzeko debekua ere jarri zieten. Helegite guztiak atzera bota ditu administratitzak: "Errekurtsio gehiago ez jartzeko esan digute, Espainian presoak aipatzea bakarrik delitua ei delako", adierazi du bi gazteetako batek. Isuna ordaintzea da aukera bakarra, beraz, eta gastuei aurre egiteko herriko bost talderen babesarekin musika jaialdia antolatu dute.

Herriko bost talde gaztetxean

Iaz hasi ziren jaialdia antolatze-lanekin. Hasieran bi eguneko jaialdia egitea zen asmoa baina azkenean egun bakarrean egingo dute: "Hainbat talderen babesa jaso dugu baina talde guztiak elkartzea ezinezkoa zen". Irailaren 17an izango da kontzertua, gaztetxean. Sarrera bost euro ordaindu beharko da; salgai dade Taupa eta Iluntz tabernetan.

Belaunaldi ezberdinetako herriko bost talde igoko dira agertokira; punk-oi! eta punk-rock doinuak izango dira nagusi: Arkada Social, Never Surrender, Dirty Brothers -ez du ohiko taldeak

joko-, Interprete Desconocido eta Kate's Maniacs. Belaunaldi ezberdinetako taldeak dira eta antolatzaileek espero dute gaztetxea betetzea.

Gainera, dirua lortzeko beste bide batzuk ere hartuko dituzte. Adibidez, Realeko zenbait jokalarik sinatutako kamisetak eman-go dizkietela esan diete eta kamisetok zozketa-txartelen bitartez banatzeko asmoa dute.

Azkenik, isuna ordaindu behar duten gazteek, biziki eskertu gura diote musika taldeei eskaintako babesa: "Esan beharrik ere ez dago musika taldeen babesa izugarri eskertzen dugula", diote.

DATUA

4.000

EUROKO ISUNA BAKOITZARI

Gazte bakoitzak 4.000 euro ordaindu beharko ditu eta urtebetez futbol zelaietarako sarrera debekatuta izan dute

ESANAK

"Hainbat musika talderen babesa jaso dugu, baina guztiak batzea ezinezkoa zen"

GAZTE KALTETUA | ANTOLATZAILA



Gaztetxean joko duten talde bakoitzeko kide bana, Monterronen. | JOKIN BEREZIARTUA

Ate irekien jardunaldiak Aukean, bihar hasi eta eguenera arte

J.B. | ARRASATE

Ikasturte berriko eskaintzaren berri eman ostean, Aukeak ate irekien jardunaldiak antolatu ditu aste honetarako.

Hala, bihurtik eguenera bitartean, bazkide edo ez bazkide den edonor gonbidatuta dago egun eta ordu horietan klaseak jaso-

tzera. Hastapeneko ikastaroak izango dira; dena den, aurrez ikastaroetan izena emanda dagoen edonor ere joan daiteke.

Hainbat ikastaro probatzeko

Ate irekien jardunaldion helburua da herritarrak kirolera hurbildu eta orain arte probatu ez

dituzten kirolak ezagutzea. Eskaintza zabalago behintzat ez da aitzakia izango, denetarik ikastaroak probatzeko aukera dago-eta.

Martitzenean, spinning, pilates, body pump, body balance eta hatha yoga saioak egingo dituzte. Eguaztenean, body balance, aguagym, gazteendako aerodance, aerobik step, bosu/gap eta aerobik bosuren txanda izango da; eta eguenean, martitzeneko saio berdinak errepikatu-ko dituzte.

Aholkularitza zerbitzua

Jardunaldiak goizean 09:15etik 11:00etara, eta arratsaldean, 15:00etatik 21:30era bitartean izango dira. Ikastaro bakoitzaren ordu-tegi zehatza jakiteko kiroldegira jo edo harrerako telefonora dei daiteke: 943 77 16 77.

Horrez gain, ate irekien jardunaldietara agertzerik ez duenak informazio eta aholkularitza zerbitzua ere izango du. Zerbitzu hori goizean bakarrik egongo da zabalik.

Helduendako dantza ikastaroa Portaloiko taldearen eskutik

Portaloiko taldeak dantza tradizionalen ikastaroa antolatu du 2011-2012 ikasturterako. Helduei zuzendutako ikastaroa da eta hiru maila izango ditu: hastapena, bigarren maila eta hirugarren maila. Euskal Herriko plazetan ohikoak diren dantzak erakutsiko dituzte. Urriaren 10ean hasiko dira eta 29 saio egingo dituzte, astelehen arratsaldero elkartuz. Izena emateko AEDra (943 77 12 28) edo Gazte Bulegora (943 25 20 65) jo.

Gaur irekiko dituzte Musakolako barruko igerilekuak

Atzo amaitu zen udako kanpaina Musakolako kiroldegian. Horrek esan gura du kanpoko igerilekuak itxita daudela dagoeneko eta gaur ezkerreko barruko igerilekuak irekiko dituztela. Egun osoan egongo dira zabalik, 07:30etik 22:00etara, hain zuzen.

Hala, ikasturte berria normaltasunez hasiko du Aukeak. Izan ere, espero baino askoz gehiago luzatu ziren barruko igerilekuetako obrak, erabiltzaileen kalterako.

Gaztegunea hizpide gaurko Tokiko Gobernu batzarrean

Gaur egingo da ikasturte berriko lehen Tokiko Gobernu batzara eta gaien artean dago Pablo Urangako gaztegunea. Obren jarraipena egiteaz gain, bizilagunei eraikinaren egitura konpontzeko egindako lanengatik dirua eskatzea landuko dute. Egoitza uztailen bisitatu zuten gaztetxoek-argazkian-, baina urrian jarriko da martxan.





Larrainen abuztuan egin zen Monzon pastoreko irudi batzuk. | KRISTINA ELKORO

Monzonen bizitza zapatuko pastorealean

Zuberoako Larrain herrikoek antzetzuko dute bergarar ospetsuaren gaineko pastora Seminarioko jokastokian eta 3.000 ikusle espero dira

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Zapatuan antzetzuko dute Telesforo Monzonen gaineko pastora Seminarioko jokastokian. 3.000 ikusle espero dituzte. Herriar askok dihardute lanean dena ondo atera dadin. Sarrerak salgai daude 15 eurotan.

Jesus Elortza alkateak dioenez, Bergarako herriarendako pastoral honek "garrantzi berezia" du; alde batetik, kulturalki, "ekintza izugarria" delako, eta, bestetik, pastora-leko protagonistarengatik berarengatik.

Protagonista Telesforo Monzon izanik, haren kantu ezagunak abestuko dituzte emanaldian eta haren bizitza ekarriko dute gogora. Bergarar askok gertu-gertutik sentituko dituzte hainbat eszena. Monzonez gain, Bergarako beste pertsonaia batzuk ere azaltzen dira pastorealean; adibidez, Jose Luis Elkoro.

163 zuberotar Bergaran

Telesforo Monzon pastora aurten larraindarrek antzetzuko dute. Abuz-

tuan estreinatu zuten Larrainen (Zuberoa). Urtero Zuberoako herri batek egiten du pastora eta aurtentzen Larraingoei egokitu zaie. Herri txikia da, 220 bat biztanlekoa, eta pastorealean, modu batean edo bes-

tean, antzetzten-eta, 170 bat lagun murgildu dira. Bergarara 163 lagun etorriko dira, autobusez.

Begarako Udalak 3.000 lagun batu nahi ditu pastora ikusteko. Horretarako, Seminarioko jolasto-

kia antzoki bihurtuko dute. Harmailek jarriko dituzte, erdian aulkiak eta aurre-aurrean oholtza, Miguel Altuna ondoan. Eurria egingo balu, beste plan bat aurreikusi dute.

Karpa handi bat jarriko dute jolastokian, estalki modura, eta, horrela, 2.000 lagunendako tokiak izango da, gehienez ere. Aurrekontua osatzeko traba izango litzateke, baina, gutxienez, pastora antzetzuko dela ziurtatuko lukete. 63.000 bat euroko aurrekontua du pastora Bergarara ekartzeak.

Antolaketarako jendea

Udalak dei egin die herritarrei antolaketa lanetan laguntzeko. Bazkaria zerbitzatuz, sarrerak salduz, tortillak eginez afarirako... Baita Larraindik datozenak etxean lotarako hartzeko ere. Modu batean edo bestera lagundu nahi dutenek Bergarako Udaleko kultura zerbitzura deitu (943 77 91 81) edo bidal dezatela mezu bat mosa@bergara.net helbidera.

Pastora 17:00etan izango da. Aurretik, harrera egingo zaie San Martin plazan, 14:00etan, eta, ostean, kale-jira egingo dute. Ia 4 ordu iraungo du pastoralak.

Sarrerak salgai


Sarrerak salgai daude Euskal Herriko hiriburuetan eta Debagoienean. Ibarrean, honako toki hauetan: Bergarako turismo bulegoan, Bergarako kultura etxean, Arrasateko AED elkartearen eta Oñatiko kultura etxean. 15 euroren truke.

Udalak gomendatzen du autobusa erabiltzea, baina, bestela ere, hiru aparkaleku egokitu dituzte. Hauek: San Martin eskolan, Martinez Irala eskolan eta Maycen.

Monzonen bizitza eta obra erakusketa baten udaletxean

Telesforo Monzonen gaineko erakusketa ere izango da ikusgai Bergarako udaletxe osoko bilkuren aretoan. **TM3. Telesforo Monzon (1904-1981): Bergararra; Politikaria; Kultura-gizona** da izenburua. Irailaren 15ean ireki eta urriaren 2an itxiko dute. Olaso Dorrea fundazioari esker eta hark lagatako materialarekin antolatu du Bergarako Udalak.

Telesforo Monzonekin eta bere ibilbide politikoarekin eta produkzio literarioarekin zerikusia duten idatzizko argibideak, jatorrizko ikonografia eta dokumentazioaren erreproduzioak eta hainbat objektu original ikusteko aukera izango da. Euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez aurkeztuta.



Monzonen irudi ohikoa. | BUA

Neurri ugari 20 bat argazki, kantuak, gutunak, liburuak, dokumentuak, bere kantuekin egindako diskoak...

Erakusketa egunean irekiko dute, baina eguazten arratsaldean egingo dute erakusketaren inaugurazio ekitaldia. Udal ordezkariek eta Olaso Dorrea fundazioak izango dira. Ekitaldia irekia izango da.

Ordutegia honako hau da:

astelehenetik ostiralera: 18:00-21:00.
Asteburuetan: 12:00-14:00/18:00-21:00. Eta irailaren 17an (pastoralaren egunean): 11:00-21:00.

Erakusketaren diseinu lana Amaia Labaienek egin du.

Ibargaraiko zuhaitzak bota izana salatu du Equo taldeak

M.B. | BERGARA

Equo Gipuzkoak salatu egin du prentsa ohar bidez Udalak Ibargara kalean zirkulazioa berrantolatzeke egindako lanen ondorioz hainbat zuhaitz bota izana.

Prentsa oharrean dioenez, "gertakari isolatua" izan arren, "ingurumenari zaion errespetu faltaren adibide bat gehiago da. Porlana ingurune naturalari lekua hartzen ari zaiola erakusten du", Equo Gipuzkoaren arabera; baita ere, gaur egungo "eredu produktiboa eraikuntzan oinarritutako etengabeko hazkuntza" dela.

Horrekin guztiarekin, Equo "eredu aldaketa exijitu" du eta azaldu du "keinu guztiek naturarekiko harreman justu baten erakusle" izan behar dutela. Hori dela eta, eskatu dio Udalari "elementu naturalak aintzat hartzeko eta gunee berdeak bul-tzatzeko".

Udalaren arrazoiak

Udal teknikariak zuhaitzak botatzeko arrazoiak azaldu dituzte. "Zuhaitz lerrokatadura horrek ez zuen zentzu handirik; oinezkoendako espaloia-ren erdi-erdian kokatuta zeuden eta Miguel Altuna institutu ondoan, zati handi baten, ia ez zuten lekurik", esan dute teknikariak. Eta gehitu dute: "Ibargaraiko biribilgunea egin aurretik ere, beti izan dugu buruan zuhaitz horiek kentzea".

Bestalde, zona horretan zuhaitzak landatzeko asmoa dutela esan dute Udaletik: "Hiribideari gogortasuna kentzeko, Seminarioko jolaslekuaren barruko aldean zuhaitz berriak landatzeko zirriborroa lantzen ari gara. Espezie egokiak, eta, posible bada, hostozabalak".

Bukatzeke, esan dute: "Udal agintari eta teknikariok garbi daukagu naturaren presentzia ezinbestekoa dela eta horren haritik, lanean jarraituko dugu Bergara herri atsegina izan dadin".



Iturgintza - Berogintza

Laskurain

Energia berriztagarriak - Klimatizazioa - Iturgintza orokorra





San Lorento ermita. | GOIENA

San Lorentzoko ermita inguruko lanak asteon hasiko dituzte

Artzamendi enpresak egingo ditu hango irisgarritasun lanak

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

San Lorentzoko ermita inguruan dauden oztopo arkitektonikoak kendu eta irisgarritasun arauetara egokitzeko lanak asteon hasiko dituzte. Aurreko udalbatzak maiatzaren 19an onartu zuen aurre-proiektua. Enpresendako deialdia egin ondoren, Artzamendiri esleitu dizkiote lanak. Enpresaren aurrekontua eta kontratatutako langabe kopurua hartu dituzte kontuan lanak emateko orduan. Artzamendik lau hilabete izango ditu eraberritzea egiteko.

Arrapala egingo dute

Ermita inguruan egingo dituzte lan nagusiak; batez ere, ermita aurreko plazarxoan. Han dagoen berdeguneari bi metro kenduko dizkiote eta arrapala egingo dute, geratzen diren bi mailen arteko desnibela gainditzeko.

Bestalde, oinezkoendako bideko zoladura berri egingo dute eta hainbat tokitan dagoen pen-

diza arindu egingo dute. Azkenik San Lorentzoko 38. eta 39. zenbakietako atarien artean plataforma erako zebra-bidea ipiniko dute.

Auzotarren batzordea

Elizaren inguruan egingo diren lanak San Lorentzo auzoa eraberritzeko planaren bigarren fasea besterik ez da. Guztira, 21 fase ditu plan horrek.

Lehen fasea auzoak duen bertikaltasuna gainditzeko egindakoa izan zen. Auzoak dituen bi zatiak

lotzeko pasabidea eta igogailua egin zituzten. Oraingoan, auzoaren zati bateko irisgarritasuna hobetu egingo dute.

Aurrera begira egin daitezkeen lanak erabakitze, auzotarrekin bilduko dira udal ordezkariak. "Gure asmoa da atari bakoitzeko ordezkari bana bilera batera deitu, eta, Errekalden egin duten antzera, bizilagunen batzorde bat osatzea", esan digu Hirigintza eta Zerbitzu batzordeko buru Josu Lizarralde.

Auzotarrek "eurek" erabaki ko dituzte auzoak dituen gabeziak, eta zein lekutan egin beharko den lan. "Eurak bizi dira han eta badakite ze behar dituzten. Auzoari buelta ematen dion errepidea ez dago egoera onean, eta, akaso, hobekuntza beharko du. Baina gure asmoa da batzordea sortu eta euren esku uztea auzoaren gabeziak zeintzuk diren erabakitzea", esan digu Lizarralde.

DATUA
21
FASE
Fase horiek ditu San Lorentzo auzoko eraberritze prozesuak.

Non dago Txanda elkarteko txantxikua?

M.B. | OÑATI

Txanda elkarteko txantxikua non dagoen galdetzen diete askok euren buruei. Irail hasieran askatu zuten, eta, oraingoan, herritar bakar batek topatu du Marku dendan.

Txandak abian jarri duen joko berria ondoko argazkian dagoen txantxikua da. Elkarteko edozein dendatan ezkutatzen da, eta topatzen duen herritarrek saria jasoko du: 50 euroko erosketa-bonua, hain justu ere.

Hilaren 28ra arte

Txantxikua lehen aldiz topatzen duenak saria jaso ondoren, berriro ezkutatuko da. "Erakusleihoe-



Txanda elkarteko txantxikua. | GOIENA

tan, denda barruan, San Lorentzon, Kale Barrian... egon daiteke. Hilaren 28ra arte ez da geldi egingo", diote Txandakoek.

OHARRAK

IKASTURTE HASIERA

Gimnasia erritmikoko Aloña-ko ordezkariak bihar hasiko dute ikasturtea. Martitzenero eta eguenero egingo dituzte entseguak, 16:45ean, 17:40an eta 18:35ean. Visi Gutierrez eta Lide Osinaga dira irakasleak.

ESPELEOABENTURA

Zapatuan, hilaren 17an, egingo dute Gesaltza-Arrikruz-Jaturabe ingurune karstikoa ezagutzeko irteera. 3-4 orduko irteera da eta beharrezkoa da material eroso, katiuskak eta frontala eroatea. Izena alde aurretik eman behar da 943 08 20 00 telefonoan. Gehienez 20 pertsona onartuko dituzte.

Ageriko pintura lehiaketaren IX. ekitaldia egingo dute hilaren 25ean

M.B. | OÑATI

Oñatiko Margo Taldeak (OMT) IX. ageriko pintura lehiaketa antolatu du hilaren 25erako. Deialdi irekia egin dute, eta adinaren arabera bi talde egingo dituzte: 16 urte artekoak maila baten eta handik gorakoak beste baten.

Lehiaketan parte hartzeko ez da izena alde aurretik eman behar. Egunean bertan, 09:00etatik 11:00etara arte, margolanak egiteko euskarriak markatuko dituzte kultura etxean. Nork bere euskarria alde aurretik presta dezake, baina ez dute zirriborrorik onartuko.

Lana egiteko edozein teknika erabili ahal izango da.

600 euro irabazlearendako

Epaimahai batek baloratuko du lanen kalitatea, eta maila

bakoitzeko hiru sari emango ditu: helduen mailako lehen saria 600 euro da, bigarrena 400 euro eta hirugarrena 300 euro. Lan horien artean ez badago oñatiarrik, 300 euro emango dizkiote margolan onenari.

Lehenengo eta bigarren sariak eskuratu dituzten lanak Udalaren eta OMTren esku geratuko dira.

Umeen mailako marrazki onenari 100 euro eta oparia emango diote. Bigarrenak eta hirugarrenak opari bana jasoko dute.

Erakusketa

Bestalde, lehiaketan parte hartzen duten lanekin erakusketa egingo dute kultura etxean, hilaren 26tik urriaren 14ra arte (18:00-20:00).



Iaz, Aitor Renteriaen olio-pintura saritu zuten. | GOIENA

Igeriketa ikastaroetarako izen-ematea, gaurtik hilaren 16ra arte kiroldegiko bulegoan

Kiroldegiko igeriketa ikastaroetan eta ur-ekintzetan parte hartu gura dutenek hilaren 16ra arte dute izena emateko, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. 0 eta 8 urte arteko neska-mutikoen gurasoek kiroldegiko bulegoan eman beharko dute izena igeriketa irakaslearekin batera.

Pake Lekuko ikastaroetarako izen-ematea zabalik dago hilaren 19ra arte elkartean bertan

Pake Leku erretiratuen elkartean hainbat ikastaro egingo dituzte, eta dagoeneko zabalik dute izen-emate epea, hilaren 19ra arte. Besteak beste, dantza, bitxigintza, euskara, sendabelar, informatika eta marrazketa ikastaroak emango dituzte. Bestalde, gaurtik eguenera arte, aurreko ikastaroetan egindako lanen erakusketa egingo da Pake Lekun, 17:00etatik 20:30era arte.

'Batetik bestera' argazki lehiaketarako lanak aurkeztu daitezke hilaren 23ra arte gaztelekuan

Gaztelekuak antolatzen duen *Batetik bestera* argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea zabalik dute hilaren 23ra arte. Gehienez hiru argazki aurkez daitezke, paperean zein euskarri informatikoan. 12-18 urte arteko neska-mutikoen lehiaketa da, eta bi argazki onenak sarituko dituzte, 150 eta 100 euro irabaziko dituzte. Argazki guztiekin erakusketa egingo dute.

ARETXABALETA

Urbaltz elkarteko eguna ospatuko dute zapatuan, ekitaldi askorekin

Herri bazkaria izango da txarangak girotuta eta gau partean Mojito Jaia

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Urbaltz Eguna antolatu dute Mitarte plazan egoitza duen elkarteko kideek zapatuetan, irailak 17. Iaz, elkarrean 25. urteurrena ospatu zuten, eta orduan sortutako giro ona aitzakia hartuta, Urbaltz Eguna egingo dute urtero hemendik aurrera. Argi dago 120 bazkide inguru dituen elkarte indartsu dagoela azken urteotan, nahiz eta momentu gogorak ere bizi behar izan dituen.

Patxi Abasoloren berbaldia

Ospakizun ekitaldiak, baina, zapatua baino lehen hasiko dituzte. Bihar, martitzena, berbaldia izango da Arkupeko Zarea aretoa (19:00); Patxi Abasolo historia irakasle eta 1512-2012 Nafarroa Bizirik egitasmoko kideak Euskal Herriko historiaren hainbat pasarte gogoraraziko ditu: *Konkistak 500 urte, deuseztatu ezin izan duten oroimena*.

Bazkaria eta Mojito Jaia

Zapatuan, ostera, jai giroa izango da nagusi. Kuxkuxtu txarangak emango dio hasiera ospakizunari (13:00) kalejira eginda eta gero Mitarte plazan elkartuko dira herri bazkarirako (14:30).



Iaz egindako 25. urteurreneko bazkaria, Urbaltz elkarte aurrean. | A.B.

DATUA

26

URTE

Urbaltzek 26 urte bete ditu, urte gazi-gozoak; 2006an, esaterako, ertzaintza eta idazkari judiziala izan ziren bertako tabernan.

Bazkarira joan gura dutenek Urbaltz tabernan dituzte salgai txartelak: helduak, 20 euro; umeak, 10 euro. Iaz, 100 lagunetik gora elkartu ziren 25. urteurrena ospatzeko eta aurten ere ez dutela hutsik egingo bazkide eta Urbaltzeko lagunek uste dute antolatzailerak. Bazkalostean berriro izango dira Kuxkuxtu txarangako kideak herriko bazterrek girotzen.

Eta gau partean, 22:00etan hasita, Mojito Jaia egingo dute Elvis Caino DJ-a lagun.

Langabeendako ikastaroak antolatu ditu Udalak

Igerilekuen, instalazio elektriko eta eguzki plaken mantentze-lanak egiten irakatsiko dute

M.A. | ARETXABALETA

Hiru ikastaro antolatu ditu Udalak langabeendako: igerileku eta spaguneeen mantentze-lanak; etxebizitza eta eraikuntzetako instalazio elektriko mantentze-lanak; eta klimatizazio eta eguzki plaken mantentze-lanak.

Iraila eta urria bitartean izango dira eskolak, baina izenemate epea asteen dago zabalik, gaur astelehenean egubakoitzera arte, hilak 16. Udaletxeko Enplegu Sailera eroan behar da izen-ema-

te orria edo posta elektronikoko bidez honako helbidera bidali: larrea@aretxabaleta.net.

Bete beharreko baldintzak

Ikastaroak debalde dira, baina parte hartzeko honako baldintzak bete beharra dago: langabea izatea; Aretxabaletan erroldatuta egotea; eta antzeko lanetan gutxienez urtebeteko lan esperientzia izatea edo Lanbide Heziketako erdi mailako ikasketaren bat eginda izatea.

12 lagunendako tokia

Hiru ikastaroetan teoria eta praktika bateratuko dituzte, eta 12 lagunendako tokia daukate bakoitzean.

Igerileku eta spaguneeen mantentze-lanen eskolak irailaren 19tik urriaren 7ra emango dituzte Sasoibide taldeko kideek (09:00-13:00), Arkupe kultura etxean.

Etxebizitza eta eraikuntzetako instalazio elektriko mantentze-lanen gaineko eskolak urriaren 3tik abenduaren 20ra izango dira (15:00-18:00), Bergarako Migel Altuna institutuan.

Eta klimatizazio eta eguzki plaken mantentze-lanen gaineko ikasketak Eki Termik enpresak emango ditu urriaren 10etik abenduaren 21era bitartean (08:00-12:00), mankomunitatearen egoitzan, Arrasaten.

ESKORIATZA

Pinu beldarraren aurkako tratamendua emango dute

M.A. | ESKORIATZA

Pinu beldarraren edo prozesionariaren aurkako tratamendu kanpainaren barruan, gaitz horrek jotako pinudiak aztertzen jardun dute, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura inguruneko zuzendaritzak beharrezkotzat jo du 5.200 hektarea inguru tratatzea aurten Gipuzkoan. Hainbat udalerritan jasoko dute tratamendua, horien artean Eskoriatza. Eguraldiak laguntzen badu behintzat, tratamendua irailaren lehenengo asteetatik aurrera hasiko dira ematen.

Desagerrarazteko bidean

Tratamendua hegazkin txiki bat erabilia bideratuko dute eta Bacillus thuringiensis var kurstaki izena duena erabiliko da, merkatuan FORAY 48 B deitutako botika.

Mendietako eta Natura Ingaruneko zuzendaritzak uste du pinu beldarren izurrite hori behin betiko desagerrarazteko bidean daudela, aurreko urteetako kanpainetako emaitza onei aurtengo tratamenduaren eraginkortasuna gehituko zaiolako. Hala ere, iaz pinu beldar izurritea izan zen gurean.

OHARRAK

HELDUENDAKO PINTURA TAILERRAK

Urriari hasi eta ekaina artean pintura tailerrak emango dituzte zapatuetan (14:30-17:30) helduendako. Izena emateko epea zabalik dago kultur etxean, hilaren 27a arte. Prezioa, 40 euro hiruhilabetea.

EUSKALTEGIKO MATRIKULATZE EPEA

Leintz Udal euskaltegi zabalik dute matrikula egiteko epea. Euskaraz ez dakitenendako

euskalduntze maila guztiak eskaintzen dituzte eta euskalduntzeko alfabetatze eta EGA mailak. Telefono zenbakia: 943 79 21 68.

KIROL JARDUERETARAKO IZEN-EMATEA ZABALIK

Kirol eskaintzan izena emateko epea zabalik dago: pilates; spinning; hirugarren adineko gimnasia; adimen urrituentzat gimnasia; total fit; igeriketa... Argibide gehiago kiroldegian: 943 71 53 28.



ARETXABALETA

'Euskalduna naiz' ospatzen

Oporretatik bueltan Euskararen Astea egin dute Kurtzebarri eskolan *Euskalduna naiz* leloarekin. Ekintza asko egin dituzte euskara eta euskal kultura indartzeko, harremanak sendotzeko eta San Migel jaiak girotzen hasteko; besteak beste, dantzak, abestiak, kondairak... Bukatzeko, eskolako ikasle eta irakasle guztiak Ojala Zelain batu ziren.

Pandero ikastarorako izen-emate epea bihar bukatuko da

Loramendi elkarteak pandero ikastaroa antolatu du irailera. Hilaren 15ean hasi eta urriaren 6a arte, eguenetan (18:30-20:00) emango ditu eskolak Lur Gurrutxaga aretxabaletarak. Izena emateko Loramendira jo behar da eta azken eguna martitzena da, hilak 13; bazkideek 10 euro eta gainontzekoek 15 euro ordaindu behar dute.

Yoga ikasturtea hasi dute eta izen-emate epea zabalik dago

Aredhana yoga psikoterapia taldeak hasi du yoga eskolen ikasturtea, eta irailean zabalik egongo da izen-emate epea. Hona eskolen ordutegia: 10:00; 17:30; eta 20:00. Argibide gehiagorako deitu honako telefono zenbakira: 616 96 57 95 (Encarna).

Yoga pentsamendua argitu eta oreka lortzeko bidea dela diote Aredhanako kideek.



Santa Kurtz 24, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

- Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
-
- Obra bukaerako garbiketak
-
- Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
-
- Kristalen garbiketak
-
- Arropa garbiketak



Lorea Larrañaga musika irakaslea kultura etxeko musika gelan piano eskola ematen. | LZ

ELGETA

Herrian bertan karate, eskola kirol, pilota, musika eta trikiti eskolak

Kirol eskaintza urrian hasiko da; Lorea Larrañagak eta Adolfo Jainagak, aldiz, asteon abiaraziko dituzte musika, piano, gitarra eta trikiti eskolak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Eskolarekin batera Elgetako neska-mutikoek laster hasiko dituzte eskolaz kanpoko jarduerak. Aurreko ikasturteetan hasitako jarduerari jarraipena eman behar dietenek ez dute zalantza handirik izango, baina badaude jarduera berri baten aldeko apustua egin gura dutenak, eta, horrela, eskaintza zein den jakitea ezinbestekoa da.

Karatea, pilota eta eskola kirola

Kirol jardueraren bat egitea bada asmoa, Elgetan bertan hiru proposamen daude aukeran: karatea, pilota eta eskola kirola. Lehenengo bietan 6 urtetik gorako umeak onartzen dituzte. Karatea astelehenetan eta eguaztenetan egingo dute, 17:30ean hasita. Pilota eskolako saioak, berriz, martitzenetan, 18:00etan hasita.

Eskola kirola egin gura duten neska-mutikoak bi taldetan banatuko dituzte: 8-9 urte eta 10-11 urte. Saioak martitzenetan eta eguaztenetan egingo dituzte; 16:30ean eta 17:30ean. Kasu guztietan, izen-emateak zabalik daude.

Musika eskolak

Lorea Larrañagak eta Adolfo Jainagak musika eskolak ematen jarraituko dute Elgetan. Asteon abiaraziko dute ikasturtea; Larrañagak gaur, astelehena, eta Jainagak eguenean, hilak 15.

5 urtetik gorako umeak hartzen ditu Lorea Larrañagak. Haur hezkuntza musikala (5 urte), hizkuntza musikala (6 urtetik gora) eta piano eta gitarra eskolak emango ditu kultura etxeko musika gelan. Hurrekin egiten du lan, baina, adierazi duenez, helduekin ere bai.

Adolfo Jainagak trikiti eta pandero eskolak emango ditu aurten ere. Eguen arratsaldeetan 16:30erako etorriko da Elgetara. Hark ere hurrekin eta helduekin egiten du lan, eta, adierazi digunez, komenigarria izaten da umeek, gutxienez, 8 urte edukitzea.

Gaztelera etorkinendako

Helduen Heziketa Iraunkorretik (HHI-EPA) etorkinendako gaztelera eskolekin jarraitzeko proposamena jaso du Udalak. Eskolak eguenean, irailak 15, hasiko dira baldin eta 10 laguneko taldea osatzen bada. Udal gizarte langile berria, Naiara Unamuno dabil egitasmoa koordinatzen. Interesatuei jakinarazten zaie taldea lehenbailehen osatzeko komenigarria dela izenematea berehalako egitea.

LEINTZ GATZAGA

San Milixanetako ferian postua jartzeko eskaera epea zabalik dago

Udaletxera bideratu behar dira izen-emate orria eta eskatutako agiriak; azken eguna, urriaren 8a

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Azaroaren 13an, domeka, ospatuko dute San Milixan eguneko feria Gatzagan eta pilotalekua artisauz beteko da, urtero legez. Horretarako, baina, aurrez egin behar dute bertan egoteko eskaera artisauak. Egunotan egin dute izen-emate deialdia eta urriaren 8a bitartean egongo da zabalik.

Eskatzaileek bi baldintza bete beharko dituzte: salgai egongo diren produktuen egilea izatea artisaua eta azoka egunean langintzaren erakustaldia egitea pilotalekuan.

Horiez gain, eskaera orriarekin batera, beste hainbat agiri aurkeztu beharko dituzte izena ematerakoan, tartean artisauen

erregistroan alta emanda dagola egiaztatuko duen ziurtagiria, curriculum eta produktuen eta postuaren argazkiak.

Tailerrak egiteko aukera

Artisau tailerra jartzeko aukera ere badago San Milixanetan, pilotaleku alboko lokalean. Ume, gazte eta helduei zuzendutako jarduerak egin beharko dituzte bertan, artisautzarekin zerikusia dutenak. Azokan parte hartzeko betebeharrak izango dituzte horiek ere eta jardueraren deskribapena bidali beharko dute.

Eskaera orriak eta agiriak udaletxera bideratu behar dituzte artisauak.

ARAMAIO

Urtarrilera arte eska daitezke bide mozketak eragindako kalte-ordainak

Udalak kaltetu bakoitzak alegazio bana egitea aholkatzen du; orain arte oso gutxi jaso dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Udalak aramaioarrei gogorazti gura die urtarrilera dutela aukera A-2620 bidearen mozketaren ondorioz jasandako kalteengatik ADIF eta Espainiako Sustapen Ministerioari ordaina eskatzeko.

Lierni Altuna alkateordeak adierazi duenez, alegazio gutxi jaso dituzte: "Udaletxeak aurkeztu zuen alegazioa instituzio publiko moduan baina herritarrek ere aurkeztu behar dute. Orain arte erreklamazio gutxi jaso ditugu".

Argibideak, udaletxean

Altunak gaineratu du erreklamazioak jartzeko udaletxeko atearak zabalik daudela herritar

orrendako, edozein zalantza argitzeko. Otsailaren 16an egingo dako bilera irekian, herritarrek jasandako kalteengatik bakoitzak egin zezakeen erreklamazioei buruzko argibideak eman ziren. Izan ere, Mercedes Zulaika abokatuak bilera hartan esan zuenez, erreklamazio eredu berbera bidaltzean balio sinbolikoetan jausiko dira ordainak: "Horregatik ezinbestekoa da erreklamazioa bakoitza bereiztea". Gero, Udalaren webgunean erreklamazioak egiteko irizpideak eta erreklamazio eredu bat jarri ziren oraindik kontsulta daitezke.

Erreklamazioak ADIFera eta Sustapen Ministerioa bidaltzea aholkatzen du Udalak.



Otsailaren 16an bilera irekia egin zen erreklamazioak eskatzeko. | JOKIN BEREZIARTUA

ANTZUOLA

Doako zenbait ekintza egunotan gimnasioan

Spinninga, fitness zirkuituak, bosu-tonua eta pilatesa probatzeko aukera egongo da

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Oporren ostean egunerokotasunerako ohitzen hasi gara dagoeneko eta gimnasioan ere prest dute aurtengo eskaintza. Irailaren 15ean, eguena, hasiko da ikasturtea gimnasioan eta aurretik zenbait ekintza doan egiteko aukera egongo da. Nahi duten guztiek joateko aukera izango dute eta hastapeneko saioak izango dira.

Gaur, astelehena, 18:30ean fitness gelan, monitore baten gidaritzapean, zirkuitu bat egingo da, 30-45 minutu ingurukoa. 19:30ean spinning saio bat egongo da. Bihar, martitzena, 10:15ean spinning saio bat egingo da eta 19:30ean bosu-tonua probatzeko aukera egongo da. Etzi, eguaztena, 10:15ean eta 19:30ean fitness zirkuitua egingo da, 30-45 minu-

tu ingurukoa; 18:30ean, berriz, spinning saio bat egingo da.

Pilatesko hastapen ikastaroak ere egingo dituzte gimnasioan. Horiek, baina, hurrengo astean izango dira. Saioak doan izango dira eta inongo konpromisorik gabe. Lau eguneko hastapen ikastaroa izango da: irailaren 19an, 21ean, 26an eta 28an egingo dira saioak, 18:30ean. Gimnasioko arduradunen arabera, oso garrantzitsua da, ahal izanez gero, lau saioetara joatea, batez ere lehenengo bietara.

Harremanetarako

Bestalde, gimnasioko arduradunek beraiekin harremanetan jartzeko e-posta helbide bat zabaldu dute: antzuelakogimnasio@gmail.com. Galderaren edo zalantzaren bat izanez gero bertara idatz daiteke.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.

943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Arte kale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

KIROLA

FUTBOLA

Bergarak ezin izan zuen ezer egin oso itxura ona eman zuen Tolosaren eta bero errearen aurka

Lehen unetik nagusitu ziren kanpokoak; etxekoek, gainera, ez zituzten aukera apurrak aprobetxatu

EMAITZA

BERGARA

0-3

TOLOSA

FITXA TEKNIKOA

Bergara: Asier, Andoni, Xabier, Iker, Aitor E. (Egoitz 45.min), Lander (Imanol 65.min), Eloy, Aitor O., Iñigo, Jokin (Ander 20.min), Ayoub (Antxon 65.min).

Tolosa: Mixel, Eneko, Jon (Urtzi 78.min), Iban, Iñigo, Unai (Ander 74.min), Mario (Gaizka 84.min), Julen (Ibai 63.min), Iñaki U. (Arkaitz 68.min), Christian, Iñaki S.

Epaila: Aritz Reguero jauna. Lan ona. Bergarari lau txartel hori ateratzeko eta Tolosari, berriz, txartel hori bakarra.

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA
Beroa izan zen protagonista egubakoitzean Agorrosin futbol zelaian. Harmailetan ere igarri zen; ohi baino bergarar gutxiago. Gainera, Tolosako zale asko zegoen

eta hainbat jokalditan Tolosa etxeko taldea zela zirudien.

Bero larregi egiten zuen futboleko jokatzeko baina eguraldia berbera izan zen bi taldeendako eta beraz, ez da aitzakia mahoneroen denboraldi hasiera kas-karrerako.

Tolosa merezimendu osoz nagusitu zen, beheko zein goiko jokoa gehiago izan zen eta partidu osoan zehar egon zen etxeko taldea baino hobeto kokatuta.

Hasi, gola, eta zazpi puntu jaso
Norgehiagoka ezin zen okerrago hasi etxeko taldearendako. Gol inuzente bat jaso zuten zazpigarren minutuan atzealdeko akats baten ondorioz eta gainera, Jokin Baltzategi erdilariak futbol zelaia utzi behar izan zuen buruan hartutako kolpe latz baten ondorioz. Ospitalera eraman zuten eta buruko zauria josi egin behar izan zioten, zazpi punturekin.

Lehen zati osoan apenas gerturatu ziren mahoneroak tolosarren atera eta eurak, berriz, izan zituzten aukera bat edo beste 0-2koa jartzeko.

Bigarren zatia hasiera ona
Atsedendia ostean hobeto irten zen Bergara. Partiduaren



Aitor Oregi erdilariak Tolosako aurkari baten aurrean baloia gorde guran. | JULIO CALLEJA

bilan irten ziren *Neka*-ren mutilak, gorago presionatuz. Hala, izan zituzten berdinketa lortzeko zenbait aukera baina Iñigo Machok eta Eloy Crespok ez zituzten aukerok aprobetxatu. Ate aurrean ez ziren batere fin ibili.

Gero, fisikoki behera egin zuen taldeak eta minutuak aurrera joan ahala nagusitzen joan zen Tolosa. Gainera, 22. minutuan kanpokoek bigarrenaw sartu zuten. Gol ikusgarria, olinpiarra. Hau da, korner jaurtiketa itxia atera eta zuzenean joan zen sare-tara -korner guztiak oso itxiak atera zituzten-. Hor amaitu zen partidua, etxekoek ez zuten-eta bigarren golaren aurrean erreakziorako gaitasunik erakutsi. Hala, 87. minutuan 0-3koa jarri zuen Tolosak baloi geldiko beste jokaldi batean.

Hurrengo jardunaldian derbia izango dute mahoneroek, Aretxabaletan, UDAREN aurka.

NIKASIO GALAN 'NEKA' | BERGARAKO ENTRENATZAILEA

"Urduri irten eta gola horren goiz jaso izanak ez digu batere mesederik egin"

Bergara urduri irten zela uste du Nikasio Galan *Neka* entrenatzaile berriak. Aurrean, Tolosa: "Tal-de indartsua da, goiko postuetan egongo dira", dio.

Lehen, etxean eta esku hutsik. Ez da amestutako estrena-dia izan, ezta?

Ez. Taldea urduri eta presio larre-girekin irten da eta gola horren goiz jaso izanak ez digu batere mesederik egin. Hori gutxi balitz, Jokin Baltzategiren lesioak ere asko baldintzatu gaitu. Oso jokalaria



'Neka' Galan. | J.B.

garrantzitsua da, erdilarien eta aurre-larien arteko jokoa lotzen duena.

Beroa ere ez duzue lagun izan...

Beroa bi taldeendako izan da, baina eurak abuztuaren 4an hasi ziren entrenatzen eta igarri da fisikoki hobeto dau-

dela. Gu hilaren 18an hasi ginen.

Nola ikusi duzu Tolosa?

Gustatu zait. Iaz igotzeko apustua egin zuten eta ez ziren espero bezain ondo ibili. Aurten fitxaketa berriak egin dituzte; talde polita da.

OHOR. ERREGIONAL MAILA

Esku hutsik itzuli zen Mondra Lesakatik, gola 85. minutuan jasota

Lesakako Beti Gazteren aurka 1-0 galduta hasi du denboraldia Mondrak. Iban Rodriguez entrenatzailearen arabera, lehia parekatua izan zen: "Husnako berdinketa zen emaitza justuena". Gola 85. minutuan sartu zuen etxeko taldeak, baloi luze batean aurrelaria bizkor ibili eta Ander Ruiz de Azua atezaina gainditu ostean baloia sareetara bidalita. Lehen jardunaldia izateko "nahiko ondo" ikusi zuen bere taldea Rodriguezek: "Taldea berria da eta oraindik maila hartzea falta zaie hainbat jokalariri. Jarrera aldetik oso ondo egon dira, gogo handiekin".

Aloñak ezin izan zuen punturik atera Rotetaren aurka, merezi izan arren

Donostiatic esku hutsik bueltatu ziren oñatiarrak Rotetaren aurka 2-1 galdu ostean. Andoni Azkargortaren mutilek zerbait gehiago merezi izan zuten: "Zati bana izan da talde bakoitzarendako, aukerak izan ditugu baina ez ditugu aprobetxatu. Emaitza justua berdinketa izan beharko zen". Atsedendia husnako berdinketarekin heldu ostean bigarren zatiko lehen minutua bete baino lehen heldu zen 1-0koa. Gero Roberto Idigoresek jarri zuen 1-1koa, eta 1-2koa helduko zela zirudien, etxekoek kontraeraso bat aprobetxatu eta 2-1koa jarri zuten. Amaieran zenbait aukera izan zituzten oñatiarrek baina ezin gola sartu.

Lan handia egin ostean garaipena lortu zuen UDak Hondarribian

60. minutuan epaileak Beñat Etxabe egotzi ostean hamar jokalarirekin gelditu arren hiru puntuak ekarri zituen UDak Hondarribiatik (0-2). Hasieratik ondo jarri zitzaie partidua: Oxel Apraitz arrasatearrak izan zuen lehena sarera bidali zuen. Jokalari bat gutxiagorekin geratu ostean atzean ondo jarri eta kontraerasoan irten ziren Juanan Cruzen mutilak. 0-2koa Aritz Igartuak egin zuen, atezainaren aldaratze txar bat zelai erditik aprobetxatuz. Oso pozik zegoen Cruz taldearekin: "Bat gutxiagorekin sakrifizio handia egin dute; taldea oso ondo egon da".

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

Bergara - Tolosa	0-3
Hondarribia - Aretxabaleta	0-2
Beti Gazte - Mondra	1-0
Roteta - Aloña Mendi	2-1
Ondarroako Aurrera - Pasaia	0-2
Trintxerpe - Urola	1-1
Elgoibar - Real Union	0-2
Oiartzun - Berio	2-4
Behobia - Anaitasuna	2-3

HURRENGO JARDUNALDIA

Mondra - Trintxerpe
Aloña Mendi - Ondarroako Aurrera
Aretxabaleta - Bergara
Urola - Hondarribia
Tolosa - Elgoibar
Real Union - Oiartzun
Berio - Behobia
Anaitasuna - Roteta
Pasaia - Beti Gazte

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Tolosa	3	1
2 Berio	3	1
3 Real Union	3	1
4 Aretxabaleta	3	1
5 Pasaia	3	1
6 Anaitasuna	3	1
7 Roteta	3	1
8 Beti Gazte	3	1
9 Urola	1	1
10 Trintxerpe	1	1
11 Behobia	0	1
12 Aloña Mendi	0	1
13 Mondra	0	1
14 Oiartzun	0	1
15 Elgoibar	0	1
16 Hondarribia	0	1
17 Ondarroako Aurrera	0	1
18 Bergara	0	1

SASKIBALOIA

EBAAn aurkari izango duen Zornotzak kopatik kanpo utzi du Sustrai-Aloña

Maila handiko taldea izan zuten aurrean oñatiarrek; lehia parekatua izan zen

EMAITZA

SUSTRAI ALOÑA

74-82

ZORNOTZA

JOKIN BEREZIARTUA | OÑATI

Nahi baina ezin. Euskal kopatik kanpo geratu da Sustrai-Aloña finalaurdenetan. Hala ere, eta aurreboraldian gaudela ahaztu barik -markagailua bera ere *oporretan* dago; izorratuta dago eta berria ekarri behar dute-,

partidu ona egin zuten Xabi Igartuaren mutilek. Partidu ona egitea, baina, ez da nahikoa izango aurten. EBAAn beste maila bat dagoela argi eta garbi ikusi zuten zapatuan Oñatiko taldeak, izan ere, maila eta multzo berean dagoen Zornotzaren aurka neur-

tu zituzten indarrak. Lehia parekatua izan zen baina azken txanpan eraginkoragoak izan ziren kanpokoak saskiratzeetan.

Atsedenaaldian, 39-39

Lehen minutuetan zornotzarrak izan ziren nagusi (7-11/10-15/21-28), baina bigarren laurdenan erreakzionatu egin zuen etxeko taldeak (36-32), atsedenaaldira 39ko berdinketarekin ailegatzeraino.

Hirugarren eta laugarren laurdenetan hainbat gorabehera izan ostean (46-43/54-54/62-65), azken txanpan zornotzarrak izan ziren nagusi saskiratzeetan.

"Asko falta zaigu oraindik"

Urriaren 22an hasiko da EBA liga Sustrai-Aloñarendako. Bi aste eskas daramate lanean eta oraindik asko falta zaie; hala dio Xabier Igartua entrenatzaileak: "Asko falta zaigu oraindik baina gaurkoa [zapatukoa] moduko partiduak oso ondo datoz maila batetik bestera dagoen aldean nolakoa den ikusteko. Horrek, maila honetan jarraitu gura badugu behintzat, eguneroko lanean noraino heldu behar garen erakusten digu".

Azkenik, fitxaketekin pozik dagoela dio Igartuak eta taldeari asko lagunduko diotela deritzo.



Gorka Kintana arrasatearra izan da oñatiarren aurtengo fitxaketetako bat; ondo aritu zen zapatuan. | JULIO CALLEJA

XABI IGARTUA | SUSTRAI-ALOÑAKO ENTRENATZAILEA

"Lehia parekatua izan da bukaeraraino"

Pozik zegoen Zornotzari aurre

egiteko gai izan zirelako baina penatuta aldi berean Aurtentxeren aurka jokatzerik izango ez dutelako; saria zen euren dako.

Nola ikusi duzu zure taldea partiduan?

Lehia parekatua izan da hasieratik bukaeraraino. Defentsan taktika aldetik nahiko panggal gabilta oraindik; normalean da, bi aste bakarrik daramagu entrenatzen. Gainera, beroak ere ez du batere lagundu.

Amaieran apurru da lehia.



Xabi Igartua. | J.B.

Bai. Nekeagatik parebatsaskiratze garrantzitsu huts egin ditugu amaieran. Eurak ez dute barkatu.

Kopatik kanpo. Pena handia?

Pena bat da irabaziz gero datorren astean zilarrezko lehen mailako Aurtentxe taldearen aurka jokatzeo aukera izango genuelako. Hori sari bat zen guretako. Baina harro egon gintezke iaz EBAAn laugarren egin zuten Zornotzari aurre egin diogulako.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK. Etxetresnetan sekulako eskaintzak! Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



BERMEA 2 URTE

1000 b/min
6 KgA⁺ Saillkapen energetikoa

GARBIGAILUA ALF 1106

260 € ASPES



BERMEA 2 URTE

1200 b/min
6 KgA⁺ Saillkapen energetikoa

GARBIGAILUA WM12E222

375 € SIEMENS



BERMEA 2 URTE

1000 b/min
7 KgA⁺ Saillkapen energetikoa

GARBIGAILUA ZEN-L1017

315 € EDESA



BERMEA 2 URTE

1400 b/min
7 KgA⁺ Saillkapen energetikoa

GARBIGAILUA WM14E465EP

410 € SIEMENS



BERMEA 2 URTE

1200 b/min
8 KgA⁺⁺ Saillkapen energetikoa

GARBIGAILUA F-2812

430 € FAGOR



BERMEA 2 URTE

A Saillkapen energetikoa

ONTZI-GARBITZAILEA 2LF013S

360 € FAGOR



BERMEA 2 URTE

A Saillkapen energetikoa

AI-1300 INDUKZIOA

335 € ASPES



BERMEA 2 URTE

A Saillkapen energetikoa

LABE PIROLITIKOA HOLLY-HP5X INDUKZIO PLAKA HOLLY-I3S

625 € EDESA



BERMEA 2 URTE

A⁺ Saillkapen energetikoa

HOZKAILUA KGN-36NVW20

490 € SIEMENS



BERMEA 2 URTE

A⁺⁺ Saillkapen energetikoa

HOZKAILUA FFJ4871X

665 € FAGOR

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.

A⁺ >>> 70%
A >>> 45%
B >>> 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik. Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

ESPAÑIAKO VUELTA

Animatuz aldarrikatzen, aldarrikatuz animatzen

- ▶ Ze maila duten erakutsi dute zaleek Vuelta ibarretik pasatzean
- ▶ Jende asko batu da tontorretan, batez ere gogorrean, Gorlan

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Bi ordu eta 65 kilometro inguru. Horiexek dira Espainiako Vueltaren kopuruak Debagoienean, gurean egin zuten denbora eta distantzia –Gorla eta Deskarga artean Urolan barrena egindakoak kendu behar zaizkio–.

Ordu eta kilometro beroak txirrindularientzako: guztiendako, adibidez Kanpazarren gora, 15:45 inguruan, ia 36 gradu zituztelako; eta, honez gain, euskal txirrindulariendako, eztabaidak eztabaida, –nazioarteko egutegiko hiru asteko itzuli handi batean gainera– berezia delako beti etxean korritzea. Eta etxekoetan etxeko, tropelean zen Markel Irizar, jaioterri duen Oñatitik gertu eta bizi izateko aukeratu zuen Udalaxpeko maldetan gora.

Eta Kanpazarren nola Elgetan, Bergaran, Gorlan, Deskargan, Antzuolan eta txirrindulariak pasa ziren bailarako beste txoetean, zaleak atera ziren errepe bazterrera, etxekoak eta besteak animatzera.

Horretara guztiak; eta horietan guztietan zenbaitek, nahi zuten baita ere gisako erakusleioa aldarrikapenak egiteko baliatu: Vuelta zapaltzen ari zen

lurra Euskal Herria dela gogora ekartzeko, presoentzako, euskal selekzioen zilegitasuna aldarrikatzeko... Eta oro har normal joan zen: ziklistak pedalak ematen –asko oilo ipurdiz seguru– eta zaleak animatzen, aldarrikatuz, hainbat.

Salbuespenetako bat: ESAITen *Txirrindularitza bai, inposatetik ez!* leloarekin bat eginaz, Gorlan ekintzatxoa egiteko asmoa zuen bergarar talde bati eragotzi egin zien Ertzaintzak –hala salatu zuten–, esku-orriak eta ESAITen ikurdun ikurrinak eta presoentzako etxeratzearen aldeko izarak ateratzea galaraziz.

Beste hainbatek, ordea, izan zuen iritzia azaltzeko aukera: Elgetan, Antzuolan, Kanpazarren, *Independentzia!* oihuz hartuz ziklistak, aldarrikatuz, baina era berean euren ahalegin ikaragarrian, ikuskizuna emanez, para je honetakook hain maitea dugun kirolean dihardutenei animorik ukatu gabe. Lehendakaria oso motz geratu baitzen: Europa bazterreko penintsula zati honetan –nahi edo nahi ez– NAN bera dugun lurraldeetakoetan onena bainoago, munduko zalego hobereetakoa baita euskalduna.



Euskal Herrian egindako sartu-irtenean, Espainiako Vueltako txirrindulariak Antzuolatik pasatzen. | JULIO CALLEJA



Bergarako zale taldea, ziklistak pasatu aurretik, Gorlan. | JULEN IRIONDO



Markel Irizar taldekideez inguratuta, eta atzerago Pur...



Debagoienetik ihes eginda pasatu zen taldea Elgetan...

UNAI ARANTZABAL
BERGARA

"Ez dira mahaian jarri berba egitera, inposatu egin dute Espainiako Vuelta hemendik pasatzea. Gu ez gaude hemendik pasatzearen kontra, Belgikatik pasatzen den moduan; baina moduak ez dira egokiak izan eta hori salatzen dugu".

MIKEL FERNANDEZ
ANTZUOLA

"Menditik etorri gara, Gaztelugainetik barrena, bizikletaz. Bide txarra da, baina ez da hain gogorra. Igor Anton eta Mikel Nieve animatu behar ditugu batez ere. Bilbokoa ederra izan zen. Politza da herri ondotik halako lasterketa pasatzea. Giro ederra dago gainera".

JESUS AGIRREZABAL
URRETXU

"Beti ibiltzen gara Euskaltel-Euskadiko maillotarekin; Bilbokoarekin oilo ipurdia jarri zitzaigun. Badirudi azkenaldi honetan hobeto daudela gure txirrindulariak. Nik Nibalarekin nuen esperantza Igor Antonek huts egin zuenean, baina polita izan da".

MAITANE OIARTZABAL
AZPEITIA

"Familia dena etorri gara, egun-pasa. Bazkaldu dugu eta orain ziklistak ikustera. Emozioa eragiten digu bertatik bertara ikusi ahal izatea. Euskalteko denak animatuko ditugu, eta beste euskaldunak ere bai. Saiatzen gara umeei afizioa kutxatzen. Iruditzen zait kirola dela hemen garrantzitsua, politikari ez diot begiratzen".



Kanpazartik azkenak pasatu ziren bi txirrindulariak. | J.I.



to Rodriguez, Wiggins eta Cobo. | J.C.




Txirrindulariak protesta paretik pasatzen, Elgetan. | J.C.



n, Euskalteleko Isasi eta Txurruka tartean. | J.C.



Zaleen animoak jaso zituzten ihes egindakoek Gorlan. | J.I.



Markel Irizar. | GOIENA

MARKEL IRIZAR | RADIOSHACKEKO TXIRRINDULARIA

"Polita izan da Epelen gora tiraka pasatzea"

Zortzigarren itzuli handia izan da aurtengo Vuelta oñatiarrarentzat. Amaieran Arrasatetik pasata gustura geratuko zatekeen etxean baina, Madrilgo joan-etorriaren ostean, Txinara bidaia-tu behar du oraindik.

Vuelta Euskal Herrian...

Espainiar sentitzen diren euskal herritarrek izan dira, nire ustez, lasterketa politizatu dutenak, eta horrek kalte egin dio probari. Vuelta duela bi urte Holandan ibili zen moduan, aurten ere bere mugetatik kanpo ibili da zenbait egunez, kasu honetan Euskal Herrian. Horrela sentitu dut nik. Euskaldunok izugarriko zaletasuna dugu txirrindularitzarako, eta hori argi ikusi da: denak animatzen, bultza egiten, edatekoa eskaintzen... Jende asko eta oso jarrera ona. Egunok arrakasta izan dira, baina ez Vueltaren arrakasta, baizik eta euskal herritarrena. Jendeak bere iritzia eman du, baina beste behin errespetu handia erakutsi du lasterketarekiko, gurekiko eta beste iritzi batzuekiko. Beste batzuk ez dute errespetu hori erakusten gure iritzien aurrean, eta alde horretatik gizarteak lezioa eman du. Kutsu politikoa kenduta, dena ondo. Entrenatzen dudak lekuetatik pasa gara, etxe ondotik, lagunen aurretik... Horrek erraztu egiten du, lasterketa hau izan, Tourra edo Portugalgo itzulia. Polita izan da Epelen gora tiraka pasatzea.

Zure taldekide ohi Igor Antonek Bilbon irabazi izana, handia.

Euskal txirrindularitzarendako oso egun ona izan zen egubakoitza. Bilboko Gran Vian zegoen jendetzarekin, etxe ondotik pasata, Igor Antonek irabaztea... Euskaltel-Euskadiren historiako garaipen garrantzitsua izan dela uste dut. Pozten naiz Igozengatik, taldeagatik eta txirrindularitzagatik. Jende guztiak asko gozatu zuen garaipen horrekin eta, Txurrukak esaten zidan moduan, Gabarra ateratzea besterik ez zen falta.

Zuei dagokizuen, zortetik ez, ez taldeak eta ez zuk, nahiz eta gertu ibili zinen.

Bai, baina Chavanel eta Lastras oso indartsu zeuden. Aukerak izango nituen kalanbrek izan ez banu, baina bero handia egin zuen eta bikiak igotzen zitzaizkidan. Zu baino indartsuagoak izan direnean zorientzea baino ez dago. Taldeak, berriz, ez du zortetik izan, erlojuaren kontratokit hasita.

Vuelta ikusgarria izan da.

Ikusteko oso polita izan dela uste dut.

Guretzat gogorra izan da, baina nik, zahartzen ari naizelako agian, segurtasuna baloratzen dut orain gogortasuna baino gehiago, eta zentzu horretan oso eroriko gutxi izan dira; larrik bat ere ez, eta horrek esan nahi du errepideak seguruak izan direla. Alde horretatik oso pozik nago; lasterketaren gauza txarrena izan da traslado dezente izan ditugula, baina ibilbide eta ikuskizun aldetik arrakasta handia izan da eta pentsatzen dut formula honekin jarraituko dutela, ze formula perfektua da, karrera polita izan da.

Eta orain, Tourra, Vuelta eta gainean daramazun denarekin, Beijingo itzulira: gogorik bai?

Pentsa, Australian hasi nintzen! Ea Oñatiko Herri Eguna libratzen dudak behintzat! Gero bost egun egingo ditugu han eta urriaren 11n-edo itzuliko naiz etxera, atsedean hartzera. Denboraldi bete izan da: ia ehun lehiaketa egun egingo ditut, taldeko kideetan gehien. Gure lana da, baina

"Ez Vueltarena, euskal herritarren arrakasta izan da hemen ikusi ahal izan duguna"

hartu nahi dut, ze hurrengo urtean denboraldia indartsu hasi gura dut berriz ere; Andaluzian lortutako garaipena defendatu nahi dut. Atsedean hartu eta deskonektatu nahi dut.

Eta datorren denboraldian Leopardekin batera...

Bartzelonak eta Real Madrilek bat egitea moduan da. Txirrindularitzarentzat oso txarra da, 50-60 lagun kalera joango dira-eta. Nik banituen beste aukera batzuk, baina hitza eman nuen. Eman ziguten aukera erabakia aldatzeko, baina Bruyneekek gurekin konfiantza du eta guk berarekin ere bai, eta esan genion bera zihoan lekura gu berarekin joango ginela. Talde ikaragarrian egongo naiz, teoriar munduko talde onenean. Baina, adibidez, Tourrera joatea zaila izango da, baina ez ezinezkoa: oso txirrindulariak edukirik izan, denak ezin dira joan, eta batzuk lanerako joan behar dira. Eta niri dagokidan lana egiteko beste hiruzpalau lagun egongo dira eta ikusiko dugu ea postua irabazterik dugun. Bategiteak zapora gozoa uzten dit bertan egongo garela, baina gogoratzen naiz kanpoan geratuko diren txirrindulari eta laguntzaileez.



UNAI OSA
ITZIAR

"Gustura nago Vuelta Euskal Herrira etorri delako. Hemengo etapek Tourreko etapak dirudite, zaleendako oso politak dira. Ikusteko Vuelta polita izan da, egunero egon da saltsa. Orain Giroaren tankera du Vueltak".




MIKEL LARRAÑAGA
BERGARA

"Nik ez dut arazorik Vuelta hemendik pasatzeko. Gaztetxoan afizioa handitzeko, urtero pasako balitz hobe. Vueltako etapa jendetsuenak hauek izaten ari dira; atzo Viveron egon nintzen eta hark Tourra ematen zuen".



JUAN MARI ETXABE
ZUMAIA

"Bizikletan etorri gara Zumaia Gorrara, Bergarako aldea gogorragoa da Azkoitiko baino, baina gure adinerako nahikoa hura ere. Giro ederra dago hemen. Nik txirrindulari denak animatuko ditut. Ea Cobok eusten dion".



Gatzagako txapelketako finalistak egubakoitzeko sari banaketan. | ANDER MONEDERO

PILOTA

Pilotari arrasatearrak nagusi Dorleta pilota txapelketan

Egindako denboraldiarengatik Garate eta Moron pilotari arrasatearrak omendu zituzten

ANDER MONEDERO | LEINTZ GATZAGA
Lan bikaina egin dute Arrasateko pilotariak Dorleta pilota txapelketan. Izan ere, astebukaeran jokatu diren final guztietan, taldeko ordezkari bat sartzea lortu zuten.

Benjamin B mailan, Garitano eta Narbaezek 22-18 menderatu zuten Eraña eta Zubiagak osatutako bikotea. A mailan Etxezarretak eta Murgiondok erraz

menderatu zituzten Beitia eta Iturriotz (22-8). Alebinetan ere, Murua eta Errarte arrasatearrak errez nagusitu ziren Zubiaga eta Salaberrriaren aurka (22-7).

Infantil mailan, berriz, Otxandiora joan zen txapela. Izan ere, Ajuriak eta Carrascok osatutako bikoteak 22-17 menderatu zituen Iturriotz eta Egia. Lehia horren ostean, aurtengo denboraldian sei txapelketa irabazi dituzten

Moron II.ak eta Garatek omenaldi partidua jokatu zuten. Partidua horretan, bi pilotariak maila handia erakutsi zuten eta, azkenean, Garate eta Saratxagak 22-18 menderatu zuten Moron II.a eta Arregi bikotea. Egubakoitzeko azken partiduan, kadete mailako finalean, 22-11 Bikuña-Angiozar elorriarrak nagusitu zitzaizkien Etxezarreta I eta Moron I.

Atzo, beteranoen txanda

Domeka arratsaldean, gazte mailan, Etxagibel-Arabaolaza bikoteak Arregi eta Prieto menderatu zituen (22-16). Beteranoetan, berriz, emozioz beteriko partidua jokatu zuten Azpilikueta eta Kortak Heriz eta Bengoaren aurka, bukarran 22-21 arrasatearrak nagusi.

MAURI ZUBILLAGA | TXAPELKETAREN ANTOLATZAILEA

"Frontoia itxi izanak txapelketa hobeto antolatzeko baldintzak eskaintzen ditu"

Mauri Zubillaga arrasatearra izan da Dorleta pilota txapelketako antolatzailea.

Aurtengo txapelketa, aurreko urteetako baino luzeagoa izan da. Zergatik?

Frontoia itxi izanak txapelketa hobeto antolatzeko baldintzak eskaintzen ditu eta hori aprobetxatu dugu bost hilabeteko txapelketa antolatzeko. Aurreko urteetan txapelketa egin dugu, baina, nire ustez, aurtengoa da behar bezala

egin dugun lehenengo txapeketa. **Pozik al zaudete txapelketak izandako erantzunarekin?**

Bai. Jende askok esan dit pilota partidua dagoenean herrian giro polita sortzen dela. Martxoan hasi eta uztailera arte, igandero bost partidua jokatu dira Leintz Gatzagako pilotalekuan. Finala, herriko jaietan egin dugu.

Zenbat pilota taldek parte hartu dute txapelketan?

Zortzi taldek. Leintz Gatzagakoak izan dira hiru bikote eta, Elorrio, Otxandio,



Mauri Zubillaga. | AM.

Legutio, Aramaio, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzakoak besteak.

Pozik arrasatearrek lortutako emaitzeekin?

Bai. Final guztietan behintzat arrasatear bat izatea lortu dugu.

TXIRRINDULARITZA

Bergarako Hodei Orobengoarentzat gazteen Oñatiko Mikel Deuna saria

JULEN IRIONDO | OÑATI

Lasterketa ero samarra izan zen domekakoa, kontrol gabekoa. Guztia, dena den, azken kilometroetan erabaki zen. Aurretik hainbat ihesaldi eta taldetxo izan ziren lasterketa buruan, baina pasa beharreko aldapa gehienak pasata -Udana, Lierri eta Atagoiti- talde handia zegoen lasterketa buruan.

Helmugara iristeko dozena bat kilometro falta zirela -84 zituen lasterketak-, Oñatiko saihesbidean, eraso jo zuen Caja Ruraleko Asier Unanuek

eta atzetik jarraitu zioten Sumo-Lokatzako Hodei Orobengoak eta Fonarako Imanol Diaz bizkaitarrak.

Lasterketaren aurtengo nobedadea izan da azken bi kilometroen barruan aldapa motz baina gogorra sartu dutela antolatzaileek, Zañartu auzotik hilerrira doana.

Hango erasoetan Diaz atzean geratu, eta azken 500 metroetan Unanue baino biziago ibili zen Orobengoak. Berak jaso zituen besoak plazan, gazte mailan lehen garaipena lortuz.



Hodei Orobengoak helmugaren kokaleku berrian, plazan. | JULIO CALLEJA

MENDIKO BIZIKLETA

137 txirrindularik parte hartu zuten atzo Leintz Gatzagako martxan

A.M. | LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako jaiekin batera hasten da urtero Debagoieneko mendiko bizikleta zirkuitua. Aurten ere, gogoz hartu dute txirrindulariek lehenengo hitzordua, izan ere, atzoko frogak 137 ziklista batu baitzituen herriko plazan. Dagoeneko txirrindulariek ondo ezagutzen dute Gatzagako frogak, mendi bizikleta martxaren bederatzigarren edizioan azken urteetako ibilbide berdina egin baitzuten.

Umeen martxan izandako erantzunarekin gustura azaldu

ziren antolatzaileak. Guztira, 27 ume izan ziren txangoan. Dorletako Ama taldekoek haurrek disfrutatzen frogak egin zuten, izan ere, gaztetxoaren artean mendi bizikleta zaleak sortzea da beraien helburua.

Sari banaketa berezia

Dorletako Ama txirrindulari taldeak, mendi martxan parte hartu zuten guztiak saritu nahi izan zituen. Horregatik, parte-hartzaile guztien artean gaztak, urdaiazpikoak eta patxaran botilak zozketatu zituzten.



Hiru parte-hartzaile helmugaratzen. | ANDER MONEDERO

ATLETISMOA

Nobedadeekin datorren Arrasate-Oñatirako izena, Internet bidez

Urriaren 8an korrituko da bailarako bi herriak batzen dituen lasterketa. Aurten, gainera, roller lasterketa ere egingo da: Euskal Herriko errepideko txapelketa eta patinatzaile txapelketa izango da. ESAIT ere proban izango da. Aurrez eta www.kirolprobak.com helbidean bakarrik eman daiteke izena.

MENDIA

Domekan egingo dute Oroimen Eguna, aurten Besaidek antolatuta

Mendian hildako mendizale federatuen omenezko ekitaldiak hainbat osagai izango ditu aurten ere goizeko 10:30etik aurrera: txistulariak, meza, Txomin Uriarte federazioko presidentearen hitzaldia, dantzak eta txosna izango dira, besteak beste, Besaiden. Arrasateko goizeko 08:30ean abiatuko dira, Monterronetik. Udaltatik joango dira Besaidera.

MENDIA

Aitor Aranaren omenezko ibilaldia, hilaren 24an Aramaion

Bi aste barru egingo dute Aramaion Aitor Aranaren omenezko mendi ibilaldia. Irteera izango da goizeko 08:00etan, herriko kiroldegitik. Egunean bertan eman ahal izango da izena, 07:30etik aurrera. Zortzi euro ordaindu beharko dira. Probaren iraupena izango da sei eta zortzi ordu bitartean.

MOTOKROSA

Xabi Abasolo | Pilotua

"Motorraz zoro samarra izan naiz, baina lesioekin ikasten da burua hotz mantentzen"

- ▶ Arrasateko pilotua iaz belaunean izandako lesio larri bat gainditzen dabil
- ▶ Udan hiru aste egin ditu Belgikan entrenatzen, Europako onenekin

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Saihets bat apurta berri badu ere, Xabier Abasolok (Arrasate, 1985) ez dio Euskadiko Txapelketan lehenengo doan Txomin Arana pilotu gernikarrari beste aukera bat eman nahi, asteburuan irabazi egin nahi dio, denboraldian lehenengoz. Iazko urte beltzaren ostean, hasi da argi apur bat ikusten, eta Belgikan Europako onenekin entrenatzen egin dituen hiru asteek konfiantza eman diote: "Nahiz eta lehertuta itzuli naizen handik". Dena beharko du, udazkena lasterketez beteta dator-eta.

Zer moduz doa denboraldia?

Iaz izan nuen lesio larriaren ostean, uda aurretik hasi nintzen argi apur bat ikusten. Hanka txiki-txiki eginda geratu zitzaidan, eta izugarri kosta zait errekupe-
ratzea. Poliki-poliki banabil nire onera itzultzen, eta Euskadiko Txapelketan bigarren egin dut lasterketa guztietan, Txomin Aranaren atzetik. Azkarra da; ea asteburuan irabazten diodan.

Iazkoa izan zen orain arte izan duzun lesio larriena?

Bai, zalantza barik, baina horrenbeste izan ditut... (Barre). Lehenago ere hainbat eroriko izan ditut, ebakuntzak egin izan dizkirate bi sorbaldetan, baita eskuin hankan ere. Baina iaz dena irten zen aldrebes. Urte hasieran motorretik erori eta ezker hankako lokailuan gurutzatua egin nuen; hala ere, lurretik altxa eta lasterketa irabazteko gauza izan nintzen, baina ezin izan nintzen podiumera igo saria jasotzera. Ondoren, ebakuntza egin zidaten, eta dena aldrebestu zen hor. Operazio-gelako birus horietako bat hartu nuen eta arazo handiekin ibili nintzen, ezin errekupe-
ratu. Beste hiru ebakuntza egin behar izan zizkidaten, eta herren geratzeko arriskua nuela ere esan zidaten. Gogorra izan zen momentu hura. Erreabilitazioa Aimar Olaizola pilotariarekin batera egin nuen, eta lagun egin ginen. Kontuak kontu, hamar kilo galdu nituen, hanka erabat makalduta geratu zitzaidan, eta errekupe-
ratzeko lanean nabil oraindik ere.

Motokrosean erorikoak garesti ordaintzen direla.

Maila batetik aurrera bai, abiadura handian joaten gara.

Aurrekoa baino azkarragoa zarela jakin, eta berotu egiten zaren horietakoa zara?

Oraindik bai, baina lehen baino gutxiago. Erorikoekin ikasten da burua hotz mantentzen, motor



Xabi Abasolo motorra erabat desmuntatuta duela; Nafarroan egiten diote mantenu-lana. | XABIER URTZELAI

gainean zoro samarra izan naitzelako beti. Baina, motorretik eroriz gero badakizu hilabeteak egin ditzakezula lesionatuta.

Lesio kontuak alde batera utzita, aurten zure kabuz ari zara korritzen.

Bai. Denboraldi hasieran izan nuen Enduroan hasteko eskaintza ona, motorrean lehiatzeko gastu ia guztiak etxe batek ordainduko zizkidalako, baina lesiotik errekupe-
ratu gabe nengoen eta banekien ez nuela maila ona emango. Hala, ezetz esatea erabaki nuen, eta motokrosean urtebetez nire kabuz jarraitzea. Zorrio-

"Aurrerapauso bat egiteko joan naiz Belgikara entrenatzera"

"Hemen ez da posible kirol honetatik bizi izatea"

nez, Espainiako Txapelketako hainbat probatan lasterketa onak egin ditut, baita nazioartekoren batean ere, eta horrek babesleen interesa pizten du. Datorren denboraldira begira bi eskaintza txukun jaso ditut, motokrosean jarraitzeko.

Baina zaila izango da kirol honetatik bizi izatea.

Ia ezinezkoa. Espainian ez dut uste inor bizi denik honetatik, eta nazioarteko onenak ere justu ibiltzen dira, gastu handiko kirola delako. Eta kontutan izan lesio bat izanez gero pikutara doala dena. Gertatzen dena da

nirekin lehiatzen diren pilotu askok sekulako erraztasunak dituztela, etxean dirua dutelako. Motor azkarrak, mantenu onena... Horiekin alderatuz besteok larri-larri ibiltzen gara (Barre). Nire kasuan, lasterketetan parte hartzeko izen-emateak ordaintzen dizkirate –Euskal Herrikoetan lasterketa egun bat 300 euro izan daitezke, nazionalakoetan 700 euro –, eta motorrean mantenua ere babesleei esker egiten dut. Ondo ibiltzeko asko entrenatu behar da, eta entrenatzen ibiltzea ere garestia da; gaur egun motor hauek elektronika asko izaten dute, eta norberaren gustura jartzea ez da erraza izaten, ezta merkea ere.

Belgikako egonaldia ondo aprobetxatu duzu.

Bai, behar nuen horrelako zerbait, sentitzen nuelako nire kontrarioak geroago eta azkarrago zebiltzala, eta nik ez nuelako pilotajearen aurrerapenik egiten. Hango zirkuituak areazkoak dira, eta hor ikasten da ondo pilotatzen, baina lehenengo astean leher eginda nengoen, eta bigarrean... (Barre). Hor konturatzen zara fisikoki indartsu egotea ze garrantzitsua den.

Amaitzeko, babesleei keinu bat.

Bai, eskerrak eman nahi dizkiot bereziki ER-4 etxeari, aurten asko laguntzen dabilzalako, eta baita Motos Ion etxeari, eta Nothing Without-i ere.

"Zirkuitu falta dago hemen"

Bedoñako pilotua txundituta etorri da Belgikatik: "Han sekulako zaletasuna dute, jende mardoa dabil motorrean eta instalazio ederrak dituzte. Kataluniako pilotuek ere zirkuitu mardoa dituzte, ez dute sinesten motorrean ibiltzeko autoz ordubete egin behar izaten dugula esaten diegunean. Gurean geroago eta zaletasun handiagoa dago, baina zirkuituak falta dira. Bergaran badago bat, baina ez da inongo laguntzarik egon; geldidago hura".



Xabi Abasolo Bergaran egindako proba batean, 2009an. | JOSETXO ARANTZABAL

Purrustadak mahaian: arreta eskaera edo pilatutako emozioak askatzeko bidea

Ez dugu ahaztu behar janariak lotura estua duela haurren mundu emozionalarekin

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Otorduak elikatzeke unea baino askoz ere gehiago dira umeendako; segurtasuna ematen dieten pertsonekin egoteko unea ere bada. Mundu emozional hori ulertzen eta kontuan hartzen saiatu behar dugu, Irene Txurrukaren esanetan. Zenbait irizpide eman dizkigu *Guraso.com* atarian.

Amaren bularretik mahaira

Bizi iraupenerako hain beharrezkoa den esne iturri izateaz gain, titia segurtasun iturri ere bada umearendako. "Nolabait ere, amaren sabelera itzultzen da umea, bertan bizi izandako segurtasunera", diosku Txurrukak. "Ama-aren bihotza eta arnasa entzuten ditu berriro eta haurrarentzat horrela egotea da naturalena.

Hala, janariaren kontuan bizipen emozional aberats horri lotuta geratzen da".

Purrustadak mahaian

Txurrukaren esanetan, hobe da haurrari beti pertsona berak ematea jaten, eta etxean bazkaltzea haurreskolan edo eskolan baino gehiago. Horrelakoetan gertatzen da umeek etxean arreta estratxo bat eskatzea. "Purrustadaka hasiko dira afalorduan (...) eta hala-koetan hiru aukera ditugu: haserretu eta oihuka hastea, gatazka saihestearren nahi duena ematea edo pazientzia handiz eta irmotasunez bere ondoan egotea eta arreta ematea". Txurrukaren esanetan, purrustada horiek etxean bazkaltzen duten umeek ere izaten dituzte. Bi jatorri izaten dituzte:



Bi mutiko guraso baten begiradapean afaltzen. | ANNALIBERA

gurasoen presentzia segurua faltatzearen ondoriozko haserrea dira edo egunean zehar pilatutako emozioak eta egonezinak kanporatzeko modua. Etxeko segurtasunean emozioak egunean jartzeko aukera izaten dute, eta beharrezkoa dute hori. "Eman denbora eta bukatzen zaionean, seguruena hobeto sentituko da. Ez du arazorik izango mahaian jarri eta lasai jateko".

Dagoena jan behar dute

Segurtasuna behar dute umeek eta gurasooi dagokigu ematea. Guk erabakitzen dugu zer jaten duten. Ahal dela, gurekin eta guk bezala jan behar dute. Dagoena jan behar dute, bereizkeriarik egin gabe. Garrantzitsua da, halaber, haurrak janari hori prestatzen ikustea eta ahal den neurrian laguntzea. Duen lanaz jabetuko da. "Bazkaltzen hasi

baino lehen, bazkariaren prozesuan parte hartu duten pertsonen eskerrak eman; ama lurrari, eguzkiari, baserritarri, den-dariari, mahaia jarri duenari... Inportantea da lasai eta giro onean jatea telefono, telebista eta abar alde batera utzita". Ez atera eztabaidarako gairik eta atondu mahaia. "Denok sentitzen gara gustura leku goxo eta pan-poxetan".

Bideoblogak erreminta egokia dira ikasle etorkinen artean ahozotasuna bultzatzeko

L.Z. | ARRASATE

Tesia idatzi du gaiaren inguruan Urtza Garaik; dio orain ezinbestekoa dela eleaniztasuna bestela ulertzea. "Ikasle etorkinek bizi duten testuinguru berria bere egingo badute, haien artean bigarren hizkuntzak ikastea. "Etorkinek gogotsuago ikasiko dituzte euskara eta gaztelania beren ama-hizkuntza errespetatzen dugula sentiarazten badiegu", dio Garaik. Ikasleek, gainera, jarrera positiboa agertu ohi dute Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) aurrean.

Teknologia berriak

Ama hizkuntza erabiltzeko aukera ematen die, eta, gainera, erakargarriago, hurbilago eta interesgarriago egiten du bigarren hizkuntzak ikastea. "Etorkinek gogotsuago ikasiko dituzte euskara eta gaztelania beren ama-hizkuntza errespetatzen dugula sentiarazten badiegu", dio Garaik. Ikasleek, gainera, jarrera positiboa agertu ohi dute Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) aurrean.



Umeak ordenagailu gelan. | SULABATSU

Aplikazio bat umeen negarrak interpretatzeko

Cry Translator du izena eta hamar segundoan adierazten du umeari zer gertatzen zaion



Aplikazioa iPhone eta Ipod Touch tresnetan erabil daiteke. | CRY TRANSLATOR

L.Z. | ARRASATE

iPhone eta Ipod Touch tresnetan erabil daiteke, eta, saltzaileek adierazten dutenez, gauza da antzemateko negarrez dagoen ume batek zer duen. Urteetako ikerketa baten ondorio omen da aplikazioa. Arduradunek diote umeek ez dutela negar berdina goseak, logurak, estresak jota edo aspertuta badaude; intentsitate ezberdinak dira.

Funtzionamendua erraza da: umea negar egiten hasten denean telefonoa gerturatu behar zaio — 30 cm-tik behera — eta aplikazioak negararen intentsitate ezberdinak aztertzen ditu. Hamar segundoan diagnostikoa egiten du, eta zer egin behar den ere adierazten du.

Aplikazioa AppStore on line dendan dago eskuragarri 4,99 eurotan. Informazio gehiago www.crytranslator.com atarian.

OHARRAK

MARRAZKI BIZIDUNAK

Euskarazko marrazki bizidunak deskargatzeko webgunea da marrazkiak.99k.org. Pelikulak, marrazki bizidunak, kantuak... askotariko artxiboak ipintzen ditu eskura, eta guztiak euskaraz. 106 telesail eta 4.448 artxibo dau- de eskura.

IKASTAROA ARANTZAZUN

Irailerako eta urrirako gurasoendako eta hezitzaileendako ikastaroa antolatu dute Baketik zentroan. *Izan* proposamenean eta *Bizizikasi* pedagogian oinarritutako ikastaroa da. Irailaren 17an eta 24an eta urriaren 1ean eta 8an egingo dute.

AISIALDI ESKOLAK

Begirale, zuzendari eta jendarte-dinamizatzaile ikastaroak dira. Eskaintza zabala da, eta, aukeraketa errazteko, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak gida plazaratu du, *Astialdi Foroa* izenekoa. Argibide gehiago www.egk.org atarian.



KULTURA

Kontzertu gogoangarria Orfeoiak eta Bilboko Bandak Oñatin eskainitakoa

- ▶ Ulmaren 50. urteurreneko ospakizunen barruan antolatutako kontzertua izan zen.
- ▶ Esteban Urtzelai oñatiarrak zuzendu zituen azken abestiak; hunkigarria izan zen.

IRATI GOITIA | OÑATI

Saxofoi, klarinete, flauta... doinuek hartu zuten Oñatiko Foruen enparantza egubakoitz gauean. Izan ere, bertan eskaini zuten kontzertua Donostiako Orfeoiak eta Bilboko Udal Musika Bandak. Herriko plaza lepo bete zen. 1200 aulki inguru jarri zituzten, baina asko izan ziren emanaldia zutik ikusi behar izan zutenak; balkoietatik ikusi zuenik ere izan zen.

San Migel parrokiako kanpandorreak bederatzia puntu-puntu jo ostean, hasi zen ikuskizuna. Lehenik, Ulmako presidente den Irene Alberdik hartu zuen hitza. Izan ere, Ulmaren 50. urteurreneko ospakizunen barruan antolatutako emanaldia zen. Presidenteak esan zuen eurendako benetan kontzertu berezia zela eta horrelako bi talde entzutetsu bertan izatea eurendako plazera zela gaineratu zuen.



Oñatiko plaza jendez bete zen Donostiako Orfeoiaren eta Bilboko Udal Musika Bandaren kontzertua ikusteko. | JULIO CALLEJA

Eskenatoki ez-ohikoa

Jose Antonio Sainz Orfeoiko zuzendariak eurendako kalean abestea ez-ohikoa dela esan zuen kontzertu hasieran: "Guk ez dakigu kanpoan abesten, baina aukerak merezi zuen. Are gehiago, Bilboko Bandaren laguntza izanik. Baina guretzat kontzertu hau oso zaila da, giro-soinu asko dago eta. Beraz, isiltasuna eskatzen dizuet. Mesedez, umeak isilik egon daitezela, gero erosiko diet piruleta bana". Hitz horien ostean, musikarien eta abeslarien txanda etorri zen. Benetan emanaldi zoragarria eskaini zuten.

Programa bikaina

Orfeoiko ehun abeslariak eta Bilboko Bandako berrogeita hamar musikariak lehendabiziko zularatu ziren bateratuta, baina elkar oso ondo hartu zuten. Errepertorio herrikoia eskaini zuten, bestek beste: Oñatin jaiotako Aita Madinaren *Aita gurea*, Jesus Guridiren *Cuadros vascos* eta Iñaki Urkizuren *Kantaldia* abestu zituzten. Jendeak oso gustura entzun zituen euskal kantagintzako abesti ezagunak. Alexander Borodin-en *Igor printzea* operako Plovetziren dantzak ere maisuki interpretatu zituzten.

Abesti batzuetan uztartuta egin zuten lan, baina Bilboko Bandak bakarka ere jo zuen. Hala, Jesus Guridiren *Baserría* zarzuelako bigarren ekitaldiaren preludea eta Henry Mancini musikagilearen doinurik ezagunenen bilduma jo zituzten; benetan bikainak izan ziren.

Amaieran ustekabekoa

Behin programan zehaztutako kantak abestu ostean, zuzendariak gaueko ezustekoa iragarri zuen: "Ez gara propina gabe joango. Gainera, ezustekoa oso bere-

zia izan zen. Dakizuen bezala, Orfeoian oñatiar bat dugu eta zuzendari-ordea denez, kontzertua ixteko abestiak berak zuzenduko ditu". Une horretan Esteban Urtzelai korotik jaitsi eta taularen aurrealdera etorri zen. Jendeak txalo zaparradarekin hartu zuen. Sainzek berriro hitza hartu eta: "Protokoloaren arabera, ezin ditu zuzendariak baino txalo gehiago jaso, baina oñatiarra izanik...". Orduantxe etorri ziren emanaldiko une hunkigarrienak. Urtzelai oñatiarraren zuzendaritzapean Mikel

Laboaren *Txoria txori* kanta jo zuten, adibidez. Ikuskizunaren amaieran Urtzelai hunkituta zegoen: "Niretzat berezia izan da. Koru munduan Oñatin hasi nintzen eta Orfeoian nago bertan eman nituen urratsengatik. Orain Orfeoiarekin hona etortzea izugarria izan da. Ulmak egin duen muntaia ikusi dudanean, harrituta gelditu naiz".

Jendeak aulkietatik jaikita amaitu zuen kontzertua eta txalo zaparrada ikaragarria izan zen. Jendea gustura eta pozik gelditu zen entzundakoarekin.




JOSE IGNACIO JAUREGI
ANTZUOLA

"Gu Arrasatetik etorri gara espresuki emanaldira. Ikaragarri gustatu zait kontzertua. Orfeoia eta banda, biak egon dira oso ondo. Gainera, bukaera zoragarria izan du, oso hunkigarria izan da. Oso pozik goaz etxera, asko disfrutatu dugu".



KONTXI INURRITEGI
OÑATI

"Kontzertu oso berezia izan da, zirrargarria. Gehien gustatu zaizkidanak izan dira Oñatiko Esteban Urtzelai zuzendu dituen abestiak. Erabat hunkitu naiz kanta horiekin. Oso pozgarria da Oñatin horrelako emanaldi garrantzitsu bat antolatzea".



BELÉN ANDUAGA
OÑATI

"Kontzertu benetan ederra izan da. Hasierako *Aita Gurea* ez zait horrenbeste gustatu, baina ondorengoak bai. Amaiera hunkigarria izan da, izan ere, Urtzelai alboko baserrikoa dugu, eta, beraz, asko poztu naiz bera zuzentzen ikusi dudanean".



MARIA ARANTZAZU ZUMALDE
OÑATI

"Bederatziurrena egiten egon naiz Arantzazun Salamancatik etorrita. Bihar berri bueltan noa eta gaur kontzertua ikusteko aprobetxatu dut. Izugarri gustatu zait, batez ere euskal kantak. Oporrak ezin-hobeto bukatu ditut, pozik noa".



Miren Narbaiza eta Ander Mujika. Napoka Iria, Kulturateko aretoko oholztan. | JULIO CALLEJA

Napoka Iria da ezustean aurkitzen zaituen berehalako enkantua, Kulturaten

Debabarreneko bikotearen saio bikainarekin hasi dira 'Kulturate akustikoak' sortako kontzertuak

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Gardena da agian hitzetako bat sententzia agertzeko. Argitasun biluzi, transparente bat Napoka Iriak abestiak askatzeko bide gisa darabilena. Garden ezutzen da sokaren ikara, ahots dotore eta aldi berean fin eta gihartsua du Miren Narbaizak, arnasa ete-

tekoa, eta "logela" abestiak, kategoria hori egotekotan. Lehen unetik azkenera, intimitatea da lortzen dutena. *Kulturate akustikoak* saioetako denboraldiko lehena izan zen barrikukoa. Eta, ez, intimitatea lortzeko ez da nahikoa "akustiko" izenaz jabetu eta distortsioa kentzea. Zer bait

oso berezia da, eta bikote honek badauka. Kontzertu ona, oso.

Elkarrizketa gozoan

Miren Narbaiza gitarra akustikoan, ahotsik ederrena, eta Ander Mujika elektrikoarekin, sutsu, txinpartak atera arte. Ez zuten atzo goizean ezagutu elkar eta

nabari da elkarrekin eta konplizitate betean eginiko denbora. Parean entzuten eta gozaten daukatenarekin konpartitzen dute mundutxo horren zatitxo bat. Abestiak bi gitarren arteko elkarrizketa gozoan eraikitzen dituzte, progresiboa da guztia eta neurtua-halere-freskoa. Emaizta

da *Lurra idor*, *Beretzeko* ala *Eran-tzun* abestiak berehalako magia daukatela, jotako gainontzeko guztiak berdin, ala Cat Powerren *Nude as the news* eta Su Ta Garren *Zure atzetik*, moldaketa berezi eta itzel biak; kantuek eurenak ala besterenak, baina kontzertuak irau bitartean, aretoan zeuden guztienak; txalo eta abesti, abesti eta txalo, gustura, aukietatik mugitzeko batere intentziorik ez zen egon-eta. Hunkigarria, indartsua, jostaria eta akustikoa izanagatik ere, elektrikoak.

Zaratarik ez

Hain onak izanda, Napoka Iria-koek isilpean egin dute aurrera, zarata larregi atera barik eta zuzenekoetan eta osteko zaleen ahoz-ahokoan aztarna utzita, kutsatuta. Maketa bat, zuzenekoak makina bat eta bi eta urtarrilean Bergarako Zabalotegin grabatu zuten zuzenekoak, *Lehertarazi edifizioak*, daukate kalean.

'Kulturate Akustikoak', abian

Eta Napoka Iriaren saioarekin hasi da kontzertu sortaren denboraldi berria. Datorren barikuan Mamy Wata afrikarrak joko du – "deabruzkoa" izan daitekeela diote-, eta zapatuan Manett bilbotarrek. Azkenik, domekan, hilaren 18an, eta saioekin amaitzeko, aspaldiko ezagun bat etorriko da Kulturatera, Keu Agirretxe bera eta Fignuh Experimente haren batera. Kontzertu guztiak 20:00etan dira eta doan.



Aroztegiko erakusketan aurki daitezkeen margoetako bi. | JULIO CALLEJA

Kutxu Otamendi zenaren lanak Aroztegi aretoan

Muniategiandikoetxea, Amondarain eta De Pedro artistek egin dute margoen aukeraketa

J.B. | ARRASATE

Kutxu Otamendi zenaren (1963 - 1993) obra ezagutzera eman eta haren ekarpenari omenaldia egin diote Beart elkartekoek egunean ireki zuten erakusketan. Zarautarra izanik ere, lotura estua izan zuen Bergararekin Otamendik – lehen urratsak bertan eman zituen, umetan – eta, horrela, artistaren 15 bat pieza ipini dituzte Aroztegi aretoan, hilaren 25era arte.

Bergarara 9 urterekin iritsi eta berehala sartu zen artearen munduan Verduri estudioan. Zarautz eta Donostian garatu zuen ibilbidea eta merkatu profesionalera iritsi zen Artelekun lanean eta El Gallinero izeneko kolektiboan ziharduera, Donostiako Igara auzoan. 1990 eta 1993 Madrilgo Arco erakustazokan hartu zuen parte. Gailurrean zegoela, 1993 urtean bertan moto istripu batean hil zen artista.

Abstrakzioa eta sinbolismoa

Aroztegin dauden margoen aukeraketa Muniategiandikoetxea, Amondarain eta De Pedro artista eta haren adiskide izandakoek egin dute. Antologia bat egitetik urrun, Otamendiren bi saso dira nagusiki ikus daitezkeenak: lehena lur tonalitate eta elementu adierazgarriak dituen etapa sinbolikoagoari dagozkionak eta bigarrena, abstrakzioa jo zuen etapa izan zena; barrokoagoa eta espresionistagoa bilakatuko zena 90 hamarkadarako.

Ordutegia

Hilaren 25era arte ikusi daiteke erakusketa astean 18:00etatik 20:30era, larunbatetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta igandetan goizez bakarrik.

"Gero arte" esan dute Ain_1 taldekoek 'Musika kaxa' disko berria aurkezteaz bat

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Musika kutxa beste behin ireki bai, baina alditxo baterako ere itxi zuten barikuan. Argi dago, bide zuzen, ohikorik sekula ez dute hartu Ain_1-ekoek. Ipar konkreturik zehazteke; bulkadarekin bat aurrera eginez, azkenean makinatxo bat kontzertu, bi disko eta errekonozimendu apal baina beroa lortu du boskoteak. Bada, disko berria aurkeztu zuten Arrotza plazan barikuan eta amaitu bezain laster, kaxa itxi, *trastoak* jaso eta irribarre zabal batekin gero arte esan zuten. Ain_1ekoek lehen egunetik izan duten aska-

tasunaren erakusle da hori eta askatasun berberarekin hasieran gitarra soilezko kantu xumeak zirenak, bossa, latin edota flamenco haizea duten pieza sentiberatan bihurtu dituzte. Eta poesia; Ain_bat, kolore beltz-gorriak eta olerkiak banaezinak baitira.

Disko berria kalean

Musika kaxa dauka izena eta momentuz Arrasateko Irati eta Iluntz tabernetan eta Emakume Txokoa eskura daiteke. Ingaruko herrietako tabernetara ere aurki zabalduko dute lan berria, 8 euroren truke.



Ain_1, Arrasateko Arrotza plazan. | JON BEREZIBAR



UDAKO ARGAZKIEN VII. GOIENA LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: goiena.net/blogak/argazkiak



EGUNSENTIA VENEZIAN. Aurten Venezian goizeko 5:30ean Kanal Nagusitik ateratako argazkia. /Argazkia: Isa Gallastegi /Arrasate



PAUSO HERRENA. Corralejoko hondartza baten ateratako argazkia da. Zoritxarrez, badago oraindik bikotekiderik gabe munduan biraka dabilena. /Argazkia: Irati Aguado /Eskoriatza



GUANAJUATO. 2011ko abuztuan ateratako argazkia, bertan ikusgai kolore askotako etxe zein eraikinek osatzen duten Guanajuato hiria (Mexiko). /Argazkia: Maialen Martinez de Zuazo /Oñati



MAITASUNA ITZALETAN. 2006ko udan ateratako argazkia. Huescako kanpin batean egon ginen oporretan eta bertan zegoen aintzira batetan, gure itzalen argazki hau ateratzea bururatu zitzaigun. Ni eta nire mutila agertzen gara. /Argazkia: Mireia Odriozola /Bergara



CANCUNEN HONDARTZA. 2010ean eztei bidaiari ateratako argazkia. Bertan, Playa del Carmen hondartza ikus daiteke. /Argazkia: Susana Gomez /Arrasate



ZAPATAK ETA ARROSAK. Danubio ibaiaren ertzean dagoen eskultura bat ageri da, II. Mundu Gerran hil ziren judutarren omenez egindakoa. Ibai ertzerara eraman eta txamarra eta zapatak kentzera behartzen zituzten, euren objektu baliosuetan zirenetan. Gero binaka lotu eta tiro bakarra jotzen zieten. Tiroak hiltzen ez zuena ibaiak irensten zuen. Ikusten den moduan jendeak arrosak eta kandelak pintzen ditu zapatatzen. /Argazkia: Uxue Agirre /Bergara



ARROKENINGURUAN. Zarautzeko hondartzan itsasbehera dela eta, ume ugari ibiltzen dira karra-marro eta izkirak harrapatu nahian arroken inguruan. /Argazkia: Andoni Garay /Arrasate



HOLANDAKO PARAJEA. Uztailean Zaanse Schans-en (Holanda) ateratako argazkia. Aurreko planoan bizikleta bat ikus daiteke eta atzean parke tipikoa. /Argazkia: Oihane Gurrutxaga Ibarburen /Bergara

Oinarriak:

- Parte-hartzaile bakoitzeko, gehienez, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta nongoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak jasotzeko epea: uztaila - irailaren 17a.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).

- Bidali argazkiak eta aipatutako datu GUZTIAK argazkiak@goiena.com helbidera, edo Golenara ekarri: ARRASATE: Otolara Lizentziaduna 31. BERGARA: Ibarra kalea 6 ARETXABALETA: Durana 11, 2. solairua, edo Basabe poligonoa E-0-5.
- Egoitzara ekartzeko, kartazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Uda argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.

Sariak:

- 1. saria:** Panasonic LUMIX DMC G10 argazki kamera digitala eta KB Photoestudiok eskaintzen dituen ikastaroetako batean, %50eko deskontu bonoa Bergarako KB Photoestudio argazki dendararen eskutik.
- 2. saria:** Cantabriari bi lagunendako astebukaera bateko egonaldia. Arrasate Bidaiek-en eskutik.
- 3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



ANTOLATZAILEA: **goiena**

BABESLEA:



Laguntzaileak:





UDA KO ARGAZKIEN

Argazki guztiak fotoblog honetan:



UDA KO ARRATSALDE BERO BATEN. Ura gelditu egin da, uda gelditu egin da; gizonaren gogoetak soilik mugitzen eta murgiltzen dira Urkuluko uretan. /Argazkia: Yera Sanchez /Aretxabaleta



HERRIARI BEGIRA. Cuscoko komunitate bateko haurrekin egindako irteera baten, Maria, bere herriari begira inoiz ikusi gabeko ikuspuntu batetik. /Argazkia: Ane Pico Urizabel / Oñati.



GETARIAN. Aurtengo Getarian ateratako argazkia. Bertan, Maider nire laguna agertzen da. Koadrila osoarekin Zarautzen eguna pasatu ondoren Getariara joan ginen afaltzera, eta eguzkia nola gorde zen ikusteko aukera izan genuen. Aurtengo udan eguzkia ikustea miraria izan da. /Argazkia: Arane Zubia /Eskoriatza



GALWAYKO BADIA. Argazkia Irlandako Galway hirian iluntze baten ateratakoa da. Bertan, badia ikusten da. /Argazkia: Jurgi Lopez de Arkaute Guridi




CASCAISEKO PANORAMA. Argazkia Portugalgo Cascaiseko panorama bat da. /Argazkia: Josu Toledo /Antzuola



MAITASUNA. Garbi dago edonorentzat, gizaki zein animalia, ez dagoela amaren ferekak bezalakorik! Gorbeia aldean ikusi genuen maitasun erakustaldi hori, aurtengo abuztuan. /Argazkia: Anjel Bergaretxe /Aretxabaleta



SUMENDIARENTZAT LAZTANAK. Snaefelsjökull glaziar eta sumendiari bisita egin eta gero horrela nahi izan genion eskertu: laztanduz. Snaefelsjökull, Islandia. /Argazkia: M. Karmen Garrido Regidor /Arrasate



ITSAS MEDUSAK. 2011ko abuztuan Valentzian medusei ateratako argazkia. /Argazkia: Lorea Ondarra /Arrasate



BEGI GORRIDUN IGELA. Costa Rican, Tortugeron, aurkitu genuen begi gorridun igel hori. /Argazkia: Iker Lopez / Arrasate



AMBOSELIKO EGUNSENTIA. Aurtengo abuztuan Kenyan, Amboseliko parke nazionalan, ateratako argazkia. Bertan, zebra batzuk Amboseliko egunsentian. /Argazkia: Kepa Urrutia /Arrasate



URBIA. 2011ko abuztuan Urbian ateratako argazkia. Hango parajeak ikusten dira argazkian. /Argazkia: Maialen Madina Elorza / Oñati



DDR MUSEOA. Berlinen ateratakoa da, 2011ko uztailearen bukaeran. DDRren (Alemaniako Errepublikak Demokratikoa) museoa. Argazki handi batzuetan kutxatxoak zeuden, eta kutxa bakoitzaren barruan garai haiei buruzko azalpenak /Argazkia: Txus Gruceta /Arrasate

VII. GOIENA LEHIAKETA



goiena.net/blogak/argazkiak



ELEFANTETXOAZAINTZEN. 2011ko abuztuan Sri Lankan ateratako argazkia. Pinnawelako elefante umezurtegiaren, nagusiek oso ondo zaintzen zuten jaioberria. /Argazkia: Ester Fernandez /Arrasate



PANPINA SALTZAILEAK. Argazkia Santiago de Queretaro (Mexiko) hirian ateratakoa da, 2011ko abuztuan. Bertan, kalean panpinak saltzen ari diren bi mexikar gaztetxo ageri dira. /Argazkia: Jokin Uribeetxeberria /Arrasate



HONDARTZAKOARRATS BAT. Aurtengo udan San Lucar de Barramedako hondartzan ateratako argazkia. /Argazkia: Iker Laspiur



FUERTEVENTURA. 2011ko abuztuan Fuerteventurako uhartera beste ikuspegi batetik ikusita. /Argazkia: Jone Erostarbe Aranburu /Oñati




AIRERATZEN. Joan den urtean Zarautzen surf txapelketa baten ateratako argazkia. Harrigarria surf maisuek egiten zituzten jauziak. /Argazkia: Antonio Baena /Arrasate



IRATXE EGUZKITAN. 2011ko abuztuan Almeriako San Jose herrian ateratako argazkia. Bertan, Iratxe Genoveses hondartzan agertzen da. /Argazkia: Igotz Urzelai Eraña /Oñati



EGUZKI IZPIAK. Orixoleko basoan sartzen diren eguzki izpiak ikusten dira argazki horretan. Abuztuko azken astean ateratakoa. /Argazkia: Elene Berezibar Armentia /Aretxabaleta




PARAJE ZORAGARRIA. Argazkia Hondarribian atetara dago 2011ko uztaillean. Hondarribitik Jaizkibelerako bidea hartu eta bat-batean paraje zoragarri horrekin egin genuen topo! /Argazkia: Garbiñe Pastor Llorente /Aretxabaleta



AIALAREN BEGIAK. Abuztuan Aialari ateratako argazkia. Bertan, haren begirada ikusten da. /Argazkia: Anibal Carmona Brito



SOROSLEAREN TXALUPA. Aurtengo udan ateratakoa argazkia, Galiziako Nerjako hondartzan. Argazkian, itsasoa eta sorosleen txalupa agertzen dira. /Argazkia: Matxalen Ceceaga Larrañaga /Bergara



ESKALATZAILEA. Aiguille Du Miditik ateratako argazkia (Chamonix, Frantziako Alpeak), 3.842 metro. Eskalatzaile ausart bat egun eguzkitsu baten; atzean, 4.810 metro garai den Mont Blanc ikusten da. /Argazkia: Josu Lete /Bergara

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Abadiño. Abadiño Muntzaratz auzoan. 3 logela handi, 2 komun, sukaldia, egongela handia jangelarekin eta balkoi handi bat dauka. Etxea ganbarearekin saltzen da. Berriztuta dago, kalefazioa du. Pisu bizi-terera sartzeko moduan dago, egoera onean. Prezioa negoziagarria da. 678-83 60 50.

Azkoitia. Etxebizitza salgai Azkoitian. Dena berrizteko. Aizkibel 6-4. 91m2. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 648-64 01 01.

Bergara. 72 m2ko etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela eta komun bat. Berokuntza, gasarekin. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 606-65 58 08/660-04 25 25.

Berriz. Aukera oso ona. Baseri polit bat salgai Berrizen, Durangotik justu 6 minutura. 300 m2 ditu etxeak eta 13.000 m2-ko terrenoa, arrain errekatko bat ere badu. Urezko errota dauka mar-tan. Txakolina, kiwiak, intxaurrak, gaztainak, fruta arbolak, ortu ederra, landak eta jardinak ditu. Anbotora bistak. Dena harrizkoa. Garajea du kotxe batentzat eta parkina beste 4 kotxeentzat. Leku baketsua eta pozik bizitzeko modukoa. Familia bat edo bi bizitzeko aproposa, bi ezkaratz ditu, 3 komun, lau logela eta egongela bat, eta leku gela gehiagorik ere. Etorri ikustera. Deitu: 669-45 46 18; 94-603 32 18; 94-620 18 59. telefono zerbakietara

Elorrio. 65 m2-ko etxebizitza salgai. Prezio oso interesgarria. Igogailua jartzeko asmoarekin. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 615-73 27 27.

Elorrio. Elorrioko erdialdean kokatua dagoen etxebizitza salgai. 2 logela eta 2 bainugela. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 634-45 72 01.

Etxarri-aranatz. 84 metro, 3 logela, egongela, sukaldia eta komun. Eguzkitsua, bista ederak eta berogailua, berriztua, igogailurik gabekoa. Prezioa 105.000 euro. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 654-23 41 02.

Etxarri-aranatz. Etxe bat saltzen da Etxarri Aranatz. Aralarra eta Beriainera bista ederrak. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 686-75 07 00.

Etxarri-aranatz. Duplex bat salgai Etxarri Aranatz. 120 m2 inguru, guztiz berritua eta jantzia. Bista paregabeak. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 626-11 78 94.

Oñati. Etxebizitza salgai San Lorentzen. Lau logela, bainugela bat eta komun txiki bat, jangela-egongela eta sukaldia. Garaje itxia. Ganbara. Balkoia eta terraza. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 634-43 78 19.

Oñati. Etxebizitza salgai San Lorentzen. Lau logela, bainugela bat eta komun txiki bat, jangela-egongela eta sukaldia. Garaje itxia. Ganbara. Balkoia eta terraza. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 634 43 78 19

Otxandio. Apartamentu jantzia salgai. Garaje eta trastelekuarekin. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 675-71 72 83.

Zumarraga. Etxebizitza eguzkitsua salgai. Bi logela, egongela, komun eta sukaldia. 156.300 euro. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 638-33 03 01.

103. ERRENTAN EMAN

Ainsa (Huesca). 50 m2-ko atikoa alokatzen da Huescako Ainsa herrian. Kanpora begira. 2 gela, sala, sukaldia, komun eta egongela. Guztiz hornitua. Garajea eta trastelekuak. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 630-67 48 64.

Antzuola. Bi logeladun etxebizitza ematen da errentan. Igogailuarekin. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 645-00 89 97/645-70 80 26.

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela. Jantzia. 649-55 48 10.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik gertu. Ikasleentzat. Hiru logela, egongela, sukaldia eta komun. 650-02 79 27/943-79 99 63.

Arrasate. 120 metro koadroko etxebizitza. Garbiketa gela, sukaldia, komun txikia, bainugela, egongela-jangela eta lau logela. Erdigunean. Unibertsitatetik bost minutura. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 609 03 85 20.

Arrasate. Hilean 600 euroatik guztiz jantzitako apartamentua ematen da errentan Bizkaia etorbideko 2an. Pertsona bat edo birendako egokia. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 636-68 28 26.

Arrasate. Ikasleentzat edo bikote batentzat egokia. Hiru logela. Unibertsitatetik gertu. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 645 76 17 88

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logela eta bi komun. Igogailuarekin. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 675-71 50 36.

Durango. Durangon pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukaldia eta 2 komun. Irailetik aurrera. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 750 euro.

Elorrio. Elorrio pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukaldia eta komun. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 94-658 20 18.

Oñati. San Lorenzo 10A-n, 4. solairuan, etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, egongela, sukaldia eta bi bainugela. Garajea aukeran. Interesatuok deitu 686-76 01 87 edo 943-78 13 57 zerbakietara.

Torreveja (Alacant). Torrevejian bungalow alokatzen da. Urbanizazio pribatuan, gune berdeak eta igerilekuak. 3 logela, egongela, sukaldia eta solariuma. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 615-77 96 22. Itsaso.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Bikote arduratsua gara eta Aretxabaletan denboraldi luze errentan hartzeko pisu bila gabilta. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 669-83 35 61.

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Hiru logelakoa. 626-12 55 60/662-26 71 41.

Bergara. Etxebizitza hartu nahiko nuke errentan. 2 edo 3 logelakoa eta kontratuarekin. Presazkoa. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 697-62 59 57.

Debagoiena. Familia batek 3 logelako etxebizitza hartuko luke errentan. Interesatuok deitu 698-33 62 98 edo 632-31 87 56 telefono zerbakietara.

Durango. Bikote arduratsua alokairuko pisu baten bila durango inguruetan. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 617-86 00 55.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagor argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdtu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoienetik kanpo iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com



Deba Garaia Inmobiliaria

Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Sanantonabat, 75 m², oso ondo, eguzkitsua, lorategia.
- Aranerrek, 80 m², oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m², eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Burdinategi, 104 m², oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m², oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m².
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- Ibargarai, 80 m², oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m², oso ondo.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Urteaga 109 m², berritua, oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- San Lorenzo. Prezio ona. Berria.
- Urteaga. Berrizteko. Prezio ona.
- Urarte (Lorentxoko), 140 m². Berria
- Bidekurutzeta. 78 m². Berritua.
- Juan XXIII enparantza. 87 m². Ondo.
- Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, artokan, San Lorentzen eta Lorentxokan.
- Lorentxokan aukera ona.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Ibargarai, 88 m². Berria. Garajearekin.
- Fraizkozuri, 75 m², eguzkitsua, oso ondo.

ANTZUOLA

- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokrosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Martoko. 70 m². Igogailuarekin. 192.233 €.
- Basarte. 68 m². Terrenoarekin.
- Artekale 40 m². Berritua.
- Koldo Eleizalde. 74 m². Eguzkitsua. Prezio ona.
- Ozaeta. 96 m². Eraikuntza berria.
- Osintxo. 84 m². Igogailuarekin. 153.258 €.
- Ibargarai 54 m². Garajearekin.
- Burdinategi 53 m². 162.273 €.
- Matxiategi 65 m². Igogailuarekin. 190.000 €.
- Mizpildi. 70 m². Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 70 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m². 154.761 €.
- Aranerrek 80 m². 189.319 €.
- San Lorenzo 68 m². Berritua.
- Herri Lagunak 52 m². Prezio ona.
- Zubiaurre 51 m². Terrazarekin. 102.000 €.
- Zubiaurre 81 m². Igogailuarekin. 183.909 €.
- Zubieta 55 m². Berritua. 150.000 €.
- Etxebizitza berrien eraikuntza Martokan, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.
- Artzamendi. 75 m². Prezio ona.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan, San Lorentzen eta Ibargarain. Aukera ona.

Antzuola:

- Ondarren garajea salgai. 36 m².
- Buztinziuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m². Oso etxe ona.

Elgeta:

- AUKERA. Etxebizitza adosatutako salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua.
- PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita.
- Eraikuntza berriak Torrealdean. 186.805 €tik aurrera.

Soraluze:

- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

Debagoiena. Hiru pertsonendako etxea hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu telefono honetara. Javed. Deitu 617 98 78 67 telefonora.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu alokagai Arrasaten. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 630 71 35 83

Arrasate. Etxebizitza osatzeko jende bila gabilta. Hiru logela, sukalde hornitua, egongela handia, komun, balkoia, igogailua eta berokuntza zentrala. 260 euro hilean, gastuak barne. Unibertitate ondoan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 620 52 94 98

Arrasate. Hiru pertsona behar dira pisua osatzeko. Lau logela, komun eta sukalde-egongela. Herriko plazan bertan eta merkea. 17:30etatik aurrera deitu. 658 74 48 24

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Pertsona bakarrentzat. 657 55 81 15 edo 648 86 05 49

Arrasate. Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Langileak bizi dira. Pisuk lau logela eta bi bainugela ditu eta oso eguzkitsua da. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 653 71 44 57

Bergara. Pertsona bat behar da etxea osatzeko. 240 euro gastuak barne. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 670 85 86 68

Oñati. Etxebizitza kompartitzeko pertsona bila nabil, erdigunean (Kale Barrixan). 225 euro gehi gastuak (argia eta ura). Etxea guztiz jantzia eta hornitua. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 652 71 52 50

Logela bila Oñati-Arrasaten. Langile pisu edo etxean logela bila nabil irailaren bukaeran bizitzen sartzeko. Oñati edo Arrasaten logela, eroso eta ekonomikoaren bila dabilen 27 urteko mutil langile eta garbia. Epostaz kontaktatu mesedez, orain atzerrian naiz eta (aritu_xu_5@hotmail.com). Eskerrik asko.

Elorrio. Pisukide bila nabil Elorriko, Goietan kalean. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 686-99 16 31.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Berriz. 42 m2-ko garaje itxia salgai. Ate automatikoa. Ur eta argi instalazioak iaz eginda. Komun eta bodega txiki bat. Txoko txikia sukaldeagaz. 2 edo 3 kotxe. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 615-75 21 36.

Durango. Garajea salgai. Durango erdialdean kokatua, Tronperri kalean. Itxia. Saltzeko premia. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 686-73 44 51.

Otxandio. Garaje itxia salgai Otxandion. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 675-71 72 83.

203. ERRENTAN EMAN

Durango. Montebidean (ertzaintza alboan) 26 m2-ko garaje itxia errentan ematen da. Interesatuok deitu 656-76 76 06 telefonora.

Durango. Durango Antso Estegiz kalean garajea alokagai. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 690-18 91 68

3. LOKALAK

301. SALDU

Elorrio. 360 m2-ko pabilioia salgai Elorrioko industrialdean. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 634-45 72 01.

Elorrio. 950 m2-ko pabilioia salgai Elorrioko industrialdean. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 634-45 72 01.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Antzuola. Pertsona eskalduna behar da etxe garbiketa lanak egiteko. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 652 73 12 56

402. ESKAERAK

Abadiño. Etxeko lanak egiteko zein nagusiak zaintzeko andrea. Esperientzia handia, informeak eska diezadazkezu noiznahi. 59 urte ditut eta orduka zein lanaldi erdian lan egiteko prest nago. Irailetik hasita. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 655-71 72 63.

Antzuola edo Bergara. Neska eskalduna eta irakaslea, goizetan umeak eskolarako prestatu eta eskolara eramateko prest. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 677 60 85 96

Aretxabaleta. Haur hezkuntza ikasi duen neska eskalduna umeak zaintzeko prest. Ordu-tegimalgua. Patricia. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 636-50 83 46.

Arrasate. Hemengo emakume arduraduna edozein lanerako prest. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 615-75 41 44.

Arrasate. Arrasateko neska eskalduna ikastolan hezitzaile lanetan aritzen dena, irailetik aurrera arratsaldez umeak eta nagusiak zaintzeko prest. Agur ne. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 646-12 31 59.

Arrasate. Neska errumaniarra, arduratsua eta eskarmentuduna, orduka etxe zein atariak garbitzeko edo plantxa egiteko gertu. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 634-80 49 91.

Arrasate. Hemengo neska umeak zaintzeko, etxe lanak edo edozein lanerako prest. Orduka ere bai. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 659-55 27 16.

Arrasate. Neska gertu ume edo nagusiak zaintzeko. Eskarmentuduna. Ordu-tegi malgua. Ur eta argi instalazioak iaz eginda. Komun eta bodega txiki bat. Txoko txikia sukaldeagaz. 2 edo 3 kotxe. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 615-75 21 36.

Arrasate edo Bergara. Bertako neska, eskarmentuduna, nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 637 18 07 23

Bergara. Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 665-75 41 32.

Beasain. Jornada erdiko lan baten bila nabil, 10:00etatik 15:00etara. Sukaldean, adinekoak zaintzen, garbiketa lanetan... Interesatuok deitu zerbaki honetara: 648-48 28 10.

Debagoiena. 8:00etatik 13:00etara garbiketa lanak eggingonituzke. Baita masaje edo manikura lanak ere, etxe-etxe. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 697 66 89 20

Debagoiena. Arrasateko neska eskalduna ikastolan hezitzaile lanetan aritzen dena, irailetik aurrera arratsaldez umeak eta nagusiak zaintzeko prest. Agur ne. 646 12 31 59

Debagoiena. Asteburuetan lan egingo nuke nagusiak zaindu edo etxeak garbitzen. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699-09 46 26.

Debagoiena. Emakume eskalduna garbiketalerako edo tabernan sukaldetan laguntzeko prest. 616-68 02 18.

Debagoiena. Emakume gaztea garbitasun lanak egin edo tabernan lan egiteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 648-46 90 51.

Debagoiena. Emakumea gertu edozein motako lanetan jarduteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610-99 70 46.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaindu edo atari eta abarrak garbitzeko. Orduka. Legezko paperekin. 671 18 50 83 edo 943 10 96 89

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Orduka zein etxean bizitzen. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666-69 26 07.

Debagoiena. Emakumea prest garbiketa lanetarako eta umeak zein nagusiak zaintzeko. Orduka edo etxean bizitzeko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 646 28 55 02

Debagoiena. Igeltsero lan egingo nuke. Baita ostalaritzan ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 626 12 55 60

Debagoiena. Mutila gertu lanerako. Deitu zenbaki honetara: 680 95 65 57

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizitzaten ere bai. 659-77 96 22 / 943-76 48 80.

Debagoiena. Mutila lanerako gertu nagusiak zaintzen edo garbiketa industrialak egiten. Orduka, etxean bertan bizitzaten edo bestela. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 608 84 61 21

Debagoiena. Neska arduratsua gertu umeak zaindu, nagusiak lagundu edo orduka garbiketa lanak egiteko. 943-71 53 74 / 695-73 87 95.

Debagoiena. Neska eskalduna garbiketa lanak egin zein nagusiak zaintzeko gertu. Eskarmentuduna eta informeeekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 671-35 22 60.

Debagoiena. Neska gertu nagusi edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Orduka, egunez, gauetan edo etxean bertan bizi izanda ere bai. Erreferentzia onak daukat eta lanean berehala hasiko nintzateke. 638-93 11 48 / 943-25 01 11.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu edo ume zein nagusiak zaintzeko, orduka. Baita zerbitzari ere. Eskarmentuduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 674 59 85 01

Debagoiena. Neska gertu nagusiak zaindu edo ume zein nagusiak zaintzeko, orduka. Baita zerbitzari ere. Eskarmentuduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 636-78 34 90.

Debagoiena. Neska gertu sukaldetan laguntzeko, garbiketa, eta abarretarako. Etxean bizi izaten edo orduka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662-26 71 41.

Debagoiena. Neska gertu sukaldetan laguntzeko, elikagaiak manipulatzen titulua daukat. Orduka nagusi edo umeak ere zainduko nituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 619 92 40 86

Debagoiena. Neska gaztea eta eskalduna naiz eta aste barruan arratsalde umeak zaintzeko prest nago. Haur hezkuntza ikasi dut. Umeekin esperientzia badaukat, eta autoa ere bai. Lanerako prest nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 626-19 68 85.

Debagoiena. Orduka edo asteburuetan lan egingo nuke, garbiketa edo sukaldetan laguntzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 659-90 85 13.

Debagoiena. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Baita etxeak garbitzeko ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 638 59 04 71

Debagoiena. Senar-emazteak prest baserri batean lan egiteko, pertsona nagusiak zaintzeko eta ospitalean ngusiak gauetz zaintzeko. roeanami@hotmail.es 664 63 54 55 edo 943 79 04 69

Debagoiena. Sukaldari eskarmentuduna gertu arratsalde eta asteburuetan lan egiteko. Urte askoan sukaldetan lan egindakoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666-83 21 95.

Debagoiena. VHS-tik CDra pasatzen ditut irudiak. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679-74 00 61.

